



## TOKI ZUZENBIDEAREN EUSKAL BEHATOKIA

(Azaroa, 2024)

### ARAUGINTZAKO PROIEKTUAK

#### Diputatuen Kongresua:

- **Gizarte-ekonomia bultzatzeko lege-proiektu integrala.**

Ganberako Mahaiak, 2024ko urriaren 15ean egindako bileran, haren onespena agindu dio Lan, Gizarte Ekonomia, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Batzordeari, legegintzako eskumen osoz, erregelamenduaren 148. artikuluari jarraikiz. Halaber, erabaki du Gorte Nagusien aldizkari ofiziala argitaratzea, eta zuzenketak egiteko hamabost egun balioduneko epea ezartzea, zeina 2024ko azaroaren 6an amaituko baita.

[https://www.congreso.es/public\\_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-36-1.PDF#page=1](https://www.congreso.es/public_oficiales/L15/CONG/BOCG/A/BOCG-15-A-36-1.PDF#page=1)

### BESTE DOKUMENTU INTERESGARRI BATZUK

- **Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritza. Kontsulta: 157/2022. Egonkortze-prozesuen epeak.**

<https://sael.dip-caceres.es/consulta-sobre-los-plazos-de-las-convocatorias-de-los-procesos-de-estabilizacion-derivados-de-la-ley-20-2021-de-28-de-diciembre-de-medidas-urgentes-para-la-reduccion-de-la-temporalidad-en-el-empleo/>

- **PJC/1174/2024 Agindua, urriaren 21ekoa, Ministro Kontseiluaren 2024ko urriaren 8ko Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, finkatu egiten da 2024rako luzatu ziren 2023rako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan bake-epaitegien funtzionamendu-gastuak diruz laguntzeko azaltzen den kreditua banatzeko modulua (2024ko urriaren 26ko BOE).**

Ministro Kontseiluak, 2024ko urriaren 8ko bileran, 2024rako luzatu ziren 2023rako Estatuaren Aurrekontu Orokorretan bake-epaitegien funtzionamendu-gastuak diruz laguntzeko azaltzen den kreditu-banaketarako modulua finkatzeko erabakia onetsi zuen.

Hala ezartzen du urriaren 21eko PJC/1174/2024 Agindua, Estatu Aldizkari Ofizialean urriaren 26an argitaratutakoak.



Horrela, udalei bake-epaitegien funtzionamendu-gastuetarako ematen zaizkien dirulaguntzak udalerrietako zuzenbidezko biztanleriaren arabera modulatuko dira.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/26/pdfs/BOE-A-2024-22060.pdf>

- **7245-2024 konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa, 2024rako Zerga eta Administrazio Neurrien abenduaren 28ko 13/2023 Errioxako Autonomia Erkidegoko Legearen 12. artikuluko 1. eta 2. aparatuen aurkakoa (2024ko urriaren 29ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/29/pdfs/BOE-A-2024-22204.pdf>

- **900-2023 konstituzio-kontrakotasuneko arazoa, ustez Espainiako Konstituzioaren 31.1 artikulua urra dezaketen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175.2 artikulua (2015eko apirilean indarrean zegoen idazkera) dela-eta aurkeztua (2024ko urriaren 29ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/29/pdfs/BOE-A-2024-22205.pdf>

- **HAC/1187/2024 Agindua, urriaren 24koa, Estatuaren Kontratazio Publikoko Aholku Batzordeko kide anitzeko organoen osaera aldatzen duena (2024ko urriaren 29ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/29/pdfs/BOE-A-2024-22206.pdf>

- **2025-2028RAKO EPE ERTAINEKO ZERGA- ETA EGITURA-PLANA. ESPAINIAKO ERRESUMA.**

Dokumentu honek Espainiako Erresumako epe ertaineko lehen zerga- eta egitura-plana jasotzen du. Planak 2025-2028 urteak hartzen ditu, baina 2031ra arteko gastu-bidea finkatzen du, doikuntza-aldia 4 urtetik 7 urtera luzatzen baitu. Gastu-bidea erreforma eta inbertsio sorta handi batek babesten du. Horrek Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasotakoak gartzen ditu (2025-2028rako epe ertaineko zerga- eta egitura-plana), eta konpromiso gehigarriak jartzen ditu mahai gainean. Dokumentu hau prestatu aurretik, bilera tekniko ugari egin dira batzordearen zerbitzuekin, 1263/2024 Erregelamenduak aurreikusten duen bezala. Airefek abala eman dio 2024tik 2026ra bitarteko egoera makroekonomikoari, proiektio makroekonomikoen eta zorraren jasangarritasunaren azterketaren abiapuntu gisa balio duena.

[https://portal.mineco.gob.es/es-es/economiayempresa/EconomiaInformesMacro/Documents/Informes%20de%20previsi%C3%B3n%20y%20programaci%C3%B3n/Plan\\_fiscal\\_y\\_estructural\\_de\\_medio\\_plazo\\_2025\\_2028.pdf](https://portal.mineco.gob.es/es-es/economiayempresa/EconomiaInformesMacro/Documents/Informes%20de%20previsi%C3%B3n%20y%20programaci%C3%B3n/Plan_fiscal_y_estructural_de_medio_plazo_2025_2028.pdf)



## Artikuluak / Doktrina-azterlanak

- ***El compromiso ético como fundamento de la transformación digital de los Gobiernos locales***, Agustí Cerrillo i Martínez (*Acento Local* blogean argitaratua, 2024ko urriaren 9an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/el-compromiso-etico-como-fundamento-de-la-transformacion-digital-de-los-gobiernos-locales/>

- ***Sujeto pasivo del impuesto sobre bienes inmuebles en caso de que exista una discrepancia entre los datos contenidos en el padrón catastral y los obrantes en el Registro de la Propiedad sobre la titularidad del bien. Sentencia del Tribunal Supremo 516/2024***, Miryam Quintanilla Navarro (*Acento Local* blogean argitaratua 2024ko urriaren 11n)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/sujeto-pasivo-del-impuesto-sobre-bienes-inmuebles-en-caso-de-que-exista-una-discrepancia-entre-los-datos-contenidos-en-el-padrón-catastral-y-los-obrantes-en-el-registro-de-la-propiedad-sobre-la-titularidad-del-bien-sentencia-del-tribunal-supremo-516-2024>

- ***La externalización de procedimientos administrativos a través de encargos a medios propios***, Fernando Luque Regueiro (*Acento Local* blogean argitaratua, 2024ko urriaren 16an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/la-externalizacion-de-procedimientos-administrativos-a-traves-de-encargos-a-medios-propios/>

- ***Ciudades inteligentes y sistemas inteligentes de alumbrado público: el caso de Figueira da Foz***, Alexandre Santos Serra (*Acento Local* blogean argitaratua, 2024ko urriaren 18an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/ciudades-inteligentes-y-sistemas-inteligentes-de-alumbrado-publico-el-caso-de-figueira-da-foz/>

- ***Las finanzas de los Gobiernos locales: desafíos y oportunidades***, Luiz de Mello (*Acento Local* blogean argitaratua, 2024ko urriaren 23an)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/las-finanzas-de-los-gobiernos-locales-desafios-y-oportunidades/>

- ***Régimen jurídico aplicable al procedimiento de resolución de los contratos públicos. Sentencia del Tribunal Supremo 1259/2024***, Miryam Quintanilla Navarro (*Acento Local* blogean argitaratua 2024ko urriaren 25ean)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/regimen-juridico-aplicable-al-procedimiento-de-resolucion-de-los-contratos-publicos-sentencia-del-tribunal-supremo-1259-2024/>



- **La gestión colaborativa en el Gobierno local. Un nuevo régimen especial**, Tomàs Font i Llovet (Acento Local blogean argitaratua, 2024ko urriaren 30ean)

<https://www.gobiernolocal.org/acento-local/la-gestion-colaborativa-en-el-gobierno-local-un-nuevo-regimen-especial/>

### **Sektore Publikoko Kontratuen Legeari buruz**

- **Ventajas de los modelos colaborativos de coste objetivo**, Jose María Gimeno Feliu (Kontratazio Publikoaren Behatokiaren blogean argitaratua, 2024ko urriaren 14an)

<https://www.obcp.es/opiniones/ventajas-de-los-modelos-colaborativos-de-coste-objetivo>

- **Nuevamente el debate del producto de proximidad y los comedores escolares públicos**, Ximena Lazo Vitoria (Kontratazio Publikoaren Behatokiaren blogean argitaratua, 2024ko urriaren 21ean)

<https://www.obcp.es/opiniones/nuevamente-el-debate-del-producto-de-proximidad-y-los-comedores-escolares-publicos>

### **Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusia**

- **1307/2024 Ebazpena, 2024ko urriaren 24koa.**

Zerbitzu-kontratuko baldintza-agiriaren aurkako errekurtoa. SPKL. Baiespena. Baldintza-agiriak prezioa baino ez du aurreikusten adjudikazio-irizpide gisa, eta, hala, SPKLren 145.3.g) artikulua urratzen du. Kontratuaren objektua garbiketa- eta higienizazio-zerbitzua da. Lan-faktorearen kostua nagusia da, eta ez da hutsaldu zenbakizko kalkuluetan oinarrituta eskulaneko kontratu intentsiboa dela dioen ondorioa.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200853-2024%20\(res%201307\)%2024-10-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200853-2024%20(res%201307)%2024-10-2024.pdf)



**- 1343/2024 Ebazpena, 2024ko urriaren 24koa.**

Zerbitzu-kontratuko baldintza-agirien aurkako errekurtsioak, SPKL. Baiespena. Unitateko prezioen kontratua. Zerbitzu-kontratu bat aurkaratzea, kontratuaren lizitazioaren oinarritzko aurrekontua merkatuko prezioetara egokitzen ez dela eta LGSa errespetatzen ez duela iritzita. Kontratazio-organoak egindako orduko prezioaren kalkuluak ez ditu betetzen SPKLn eskatutako objektibotasun-baldintzak.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recursos%201178%20y%201184-2024%20\(res%201343\)%2025-10-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recursos%201178%20y%201184-2024%20(res%201343)%2025-10-2024.pdf)

**- 1299/2024 Ebazpena, 2024ko urriaren 17koa.**

Zerbitzu-kontratuaren adjudikazioaren aurkako erreklamazioa, 3/2020 ELD. Baiespen partziala. Errekurtsioak adjudikazioa baliogabetu nahi du, adjudikaziodunak ez duelako egiaztatu baliotzko eta indarreko berdintasun-plana zuenik eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen. Halaber, adierazi duenez, egiaztatu ahal izan du ez dagoela berdintasun-plan inskribaturik. Berdintasun-planaren data proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo da: plana eskaintzak aurkezteko amaiera-dataren ondoren onesteak ez du esan nahi kontratatzeko debekurik dagoenik. Kontratu egiten den egunean Plana izatea da axola duena. Adjudikaziodunaren berdintasun-plana ez dago REGCONen inskribatuta, izapidetzen ari da eta zuzentzeko dago: irregulartasun-zantzuren bat, eragotzi egiten duena, besterik gabe, baliozko eta indarreko berdintasun-plana izatearen betekizuna betetzea, inskribatzeko eskaera hutsagatik. Entitate kontratatzaileak baloratu behar du. Izan ere, entitate horrek adierazi du, bere ustez, ez dagoela kontratatzeko debekurik, eta honako honetan oinarritzen da soilik: onspen-data eta REGCONen behin betiko inskribatuta ez egotea ez direla oztopo haren baliozkotasunerako. Errekurtsioa partzialki baietsi behar da, entitate kontratatzaileak balora dezan planak betetzen ote dituen irismenaren eta edukiaren baldintzak, bai eta negoziatzeko beharragatik ere.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%201146-2024%20\(res%201299\)%2017-10-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%201146-2024%20(res%201299)%2017-10-2024.pdf)

**- 1238/2024 Ebazpena, 2024ko urriaren 10ekoa.**

Hornidura-kontratutik baztertua izatearen aurkako errekurtsioa, SPKL. Ez onartzea. Epez kanpoko izatea. Errekurtsioa epea amaitu ondoren jarri zen Euskal Autonomia Erkidegoko erregistro elektronikoan.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200980-2024%20val%20213-2024%20\(res%201238\)%2010-10-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200980-2024%20val%20213-2024%20(res%201238)%2010-10-2024.pdf)



**- 1239/2024 Ebazpena, 2024ko urriaren 10ekoa.**

Zerbitzu-kontratutik baztertua izatearen aurkako erreklamazioa, 3/2020 ELD. Ezespena. Azalpenak aurkeztean hasieran aurkeztutako eskaintza ekonomikoaren aldaketan oinarritutako bazterketa. Erreklamazioak akats materiala edo aritmetikoa alegatu du. Bidezkoa da erreklamazioa ezatea; izan ere, inguruabarrak ikusita, alde nabarmena dago argitutako eskaintzaren eta hasierako eskaintzaren artean, eta hori ezin da onartu, funtsezko datuak aldatu direlako, hala nola eskaintako orduko prezioa, eta, hala, hasieran aurkeztutako eskaintza aldatu delako.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200988-2024%20\(res%201239\)%2010-10-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200988-2024%20(res%201239)%2010-10-2024.pdf)

**- 1240/2024 Ebazpena, 2024ko urriaren 10ekoa.**

Zerbitzuen esparru-akordiotik baztertua izatearen aurkako erreklamazioa, 3/2020 ELD. Ezespena. Eskaintza anormalki baxua bada, lizitazioak justifikatu behar ditu bai kostuen errealitatea bai aurkeztutako eskaintzaren bideragarritasuna; kontratazio-organoaren txosten teknikoaren motibazio egokia. 516/2024 Ebazpena betearaztea.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200999-2024%20\(res%201240\)%2010-10-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%200999-2024%20(res%201240)%2010-10-2024.pdf)

**- 1241/2024 Ebazpena, 2024ko urriaren 10ekoa.**

Zerbitzu-kontratuko baldintza-agirien aurkako errekurtsioa, SPKL. Baiespen partziala. Errekurtso-gileak alegatzen du kontratuaren objektuak inplizituki barne hartzen dituela Segurtasun Pribatuaren Legearen 9. artikuluekin bateragarriak ez liratekeen kontratu-aldaketak, ezin baita gehitu baldintza-agirietan agertzen ez den beste bulegorik; horretarako, kontratu berri bat egin beharko litzateke, nahiz eta aldatutakoa ordu-poltsarekin ordainduta egon. Bidezkoa da preskripzio teknikoaren agiriaren 1. klausula baliogabetzea, agiriaren 1. eranskinean jasotako bulegoen zerrenda aldatzeari dagokionez, ez dagoelako lotuta kontratuan aurreikusitako aldaketa batekin, eta prozedura atzera eramatea baldintza-agiriak onartu aurreko unera. Errekurtsoan planteatutako gainerako gaiak ezetsi egiten dira; kontrol-organoak bete ditu SPKLren 130. artikulutik eratorritako betebeharrak.

[https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%201004-2024%20ml%203-2024%20\(res%201241\)%2010-10-2024.pdf](https://www.hacienda.gob.es/tacrc/resoluciones/a%C3%91o%202024/recurso%201004-2024%20ml%203-2024%20(res%201241)%2010-10-2024.pdf)



## Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa (KEAO)

- 157/2024 Erabakia, 2024ko abuztuaren 27koa.

Baldintza-agiriak. Euskararen legezko lehentasuna botere adjudikatzailearen eta kontratistaren arteko ahozko komunikazioetan; Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia; botere adjudikatzaileak normalizazio-neurriak hartzeko dituen ahalmenak; zerbitzuaren zeharkako kudeaketaren kasuan adjudikaziodunari eragiten diote neurriek; funtzio publikoaren eremuan hizkuntza-eskubide eta -betebeharrekiko analogia; kanpora ateratako zerbitzu baten kasuan herritarren hizkuntza-eskubideak botere adjudikatzaileak zuzenean ematen dituen berberak dira; kontratistak botere adjudikatzailearekin duen harremana lotura bereziko harremana da; EAEJANek funtsean berdina den klausula deuseztatzea; baiespen partziala. Beste hizkuntza-klausula batzuk: baldintza-agirietan ez dago euskararen lehentasunik idatzizko komunikazioetan; zerbitzua udaletako langileek edo hirugarren pertsonak aukeratzen duten hizkuntzan emateko betebeharra: diskriminaziorik gabeko neurria, interes orokorrean justifikatua (EUDELen helburuak eta zerbitzuaren erabiltzaileen hizkuntza-eskubideen bermea); baldintza proportzionatua (kontratistari bakarrik eskatzen zaio); erabiltzaileekin harremana duen pertsona bakarraren kaudimen-baldintza; errekurtsogileak ematen dituen zerbitzuekin lotutako baldintza; bereizketa ez da diskriminatzailea, justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa duelako eta bidezko helburua lortu nahi duelako, proportzionaltasunez. Preskripzio teknikoak: ez da egiaztatu botere adjudikatzaileak kontratuaren objektua taxutzeko duen diskrezionalitatearen mugen urraketarik; aurkaratutako klausulak ez du eskaintza lehiakor bat aurkeztea eragozten edo zailtzen. Ebazpenaren ondorioak: deusezetasunaren aplikazio moderatua; ustezko oztopoak berdin jarraitzen du euskara dakien pertsona bat izatearen eskakizunak bere horretan jarraitzen duelako; adjudikazio-prozedura ezereztea neurriz kanpokoa izango litzateke.

[https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion\\_oarc/157\\_2024/eu\\_def/adjuntos/Erabakia157\\_2024.pdf](https://www.contratacion.euskadi.eus/contenidos/resolucion_oarc/157_2024/eu_def/adjuntos/Erabakia157_2024.pdf)



## Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusia

- **3063/2023 Ebazpena, 2024ko urriaren 15ekoa. Erantzule solidario eta subsidiarioak. Bideratzeko eta zor bideratua zehazteko eskubidearen eta ordainketa exijitzeko eskubidearen preskripzioa etetea. Tributuen Lege Orokorren 68.8 artikulua.**

Zordun nagusiarekin edo beste erantzule batekin egindako bilketa-jarduketek (ex TLOren 68.8 artikulua), preskripzio-epaia eten ahal izango dute, baldin eta erantzule solidario edo subsidiario deklaratu denaren zorra ordaintzeko eskatzeko bada.

Zordun nagusiarekin edo beste arduradun batekin egindako jarduketek (TLOren 68.1 art.) ez dute eteten beste erantzule deklaratu baten zerga-zorra ordain dezan eskatzeko eskubidearen preskripzio-epaia, ezta hari erantzukizuna bideratzeko eta zor bideratua zehazteko preskripzio-epaia ere.

<https://serviciostelematicosext.hacienda.gob.es/TEAC/DYCTEA/criterio.aspx?id=00/03063/2023/00/0/1&q=s%3d1%26rs%3d%26rn%3d%26ra%3d%26fd%3d%26fh%3d%26u%3d%26n%3d%26p%3d%26c1%3d%26c2%3d%26c3%3d%26tc%3d1%26tr%3d%26tp%3d%26tf%3d%26c%3d2%26pg%3d>

- **3690/2023 Ebazpena, 2024ko urriaren 15ekoa. Premiamendu-prozedura. Berraztertze errekurritutako zerga-zor baten premiamendu-probidentzia emateko aukera, etendura-eskaerarik gabe, errekurtsoa ebazteko legezko epea igaro eta berraztertze-errekurtsoaren ebazpena jakinarazi ez bada.**

Administrazioak ezin du premiamendu-probidentzia eman, harik eta likidazio premiatuaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa berariaz, garaiz eta forma egokiz ebazteko betebeharra bete arte. Betebehar hori ez da agortzen berraztertze-errekurtsoa ebazteko administrazio-egintza ematearekin bakarrik; aitzitik, interesdunari jakinarazi behar zaio.

Betebehar hori, TLOren 104.2 artikuluan xedatutakoa aplikatu behar den kasuetan (ex TLOren 214.3 artikulua), betetzat jotzen da jakinarazpen-saiakera bat eginez edo TLOren 104.2 artikulua-aren arabera berraztertze-errekurtsoaren ebazpena bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziz, eta kasu horietan bi administrazio-egintzen jakinarazpena, berraztertze-errekurtsoaren ebazpena eta premiamendu-probidentzia aldi berean egin ahal izango dira.

<https://serviciostelematicosext.hacienda.gob.es/TEAC/DYCTEA/criterio.aspx?id=00/03690/2023/00/0/1&q=s%3d1%26rs%3d%26rn%3d%26ra%3d%26fd%3d%26fh%3d%26u%3d%26n%3d%26p%3d%26c1%3d%26c2%3d%26c3%3d%26tc%3d1%26tr%3d%26tp%3d%26tf%3d%26c%3d2%26pg%3d>





- **6635/2023 Ebazpena, 2024ko urriaren 15ekoa. Premiamendu-prozedura. Enbargo-eginbidea emateko aukera, premiamendu-probidentzia berraztertze errekurrituta dagoela, etendura-eskaerarik gabe, errekurtsoa ebazteko legezko epea igaro eta berraztertze-errekurtsoaren ebazpena jakinarazi ez bada.**

Administrazioak ezin du enbargo-eginbidea eman, harik eta premiamendu-probidentziaren aurka jarritako berraztertze-errekurtsoa berariaz, garaiz eta forma egokiz ebazteko betebeharra bete arte. Betebehar hori ez da agortzen berraztertze-errekurtsoa ebazteko administrazio-egin-tza ematearekin bakarrik; aitzitik, interesdunari jakinarazi behar zaio.

Betebehar hori, TLOren 104.2 artikuluan xedatutakoa aplikatu behar den kasuetan (ex TLOren 214.3 artikulua), betetzat jotzen da jakinarazpen-saiakera bat eginez edo TLOren 104.2 artikulua-aren arabera berraztertze-errekurtsoaren ebazpena bitarteko elektronikoen bidez jakinaraziz, eta kasu horietan bi administrazio-egintzen jakinarazpena, berraztertze-errekurtsoaren ebaz-pena eta premiamendu-probidentzia aldi berean egin ahal izango dira.

<https://serviciostelematicosext.hacienda.gob.es/TEAC/DYCTEA/criterio.aspx?id=00/06635/2023/00/0/1&q=s%3d1%26rs%3d%26rn%3d%26ra%3d%26fd%3d%26fh%3d%26u%3d%26n%3d%26p%3d%26c1%3d%26c2%3d%26c3%3d%26tc%3d%26tr%3d%26tp%3d%26tf%3d%26c%3d%26pg%3d>

## **Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa**

- **OHAR TEKNIKOA: LIINE4DU 1.0-RI BURUZKO SARRERA: PRIBATUTASUNERAKO ETA DATUEN BABESERAKO MEHATXUAK MODELATZEKO METODOLOGIA BERRIA.**

LINDDUN metodologia pribatutasunerako mehatxuak modelatzeko esparru sendo eta heldua bada ere, DBEBk erabiltzaileentzako zenbait eragozpen aurkitu ditu DBEO betetzen laguntzeko eta datuen babesaren gaineko eraginaren ebaluazio bat egiteko berariaz erabiltzean. Horregatik proposatu da LIINE4DU esparru berria, LINDDUNen oinarritua, baina eskubideen eta askatasunen babesa ardatz hartuta. Identifikatutako mehatxu-kategoriak desberdinak dira, eta hortik dator akronimo berria. Kategoría batzuk koherenteak dira LINDDUNen ikuspegiarekin, eta beste batzuk aldatu edo gehitu egin dira, esparru berriaren helburu nagusiarekin bateratzeko: datuen babesa, araudia betetzea eta eskubide eta askatasun indibidualak babestea datuen babesaren gaineko eraginaren ebaluazioen testuinguruan.

<https://www.aepd.es/guias/nota-tecnica-introduccion-a-liine4du-1-0.pdf>



**- TXOSTENA. HAUR, LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAN GAILU DIGITAL MUGIKORRAK ERABILTZEKO ERANTZUKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK. 2024ko iraila.**

Bulegoak ondorioztatu duenez, gailu eta bitarteko digitalen erabileran oinarritzen diren hezkuntza-helburuko datu pertsonalen tratamenduek egokitasunaren, behararen eta proportzionaltasunaren judizioa positiboki gainditu behar dute. Hezkuntzaren arloan datu pertsonalak biltzeko legez kontrako tratamenduek, datuak biltzeko helburutik aldentzen badira, datuak babesteko araudia hausteagatik administrazio-erantzukizuna sortzeaz gain, kalte-galera material eta ez-materialengatik kalte-ordain zibila eragin dezakete, eta ikastetxeek eta hezkuntza-administrazioek modu solidarioan erantzun ahal izango diote horri. Datu pertsonalen tratamendu mota horrek eragin larria izan dezake ikasleen oinarritzko eskubide eta askatasunetan eta pertsona gisa duten garapen integralean. Horregatik, ez da gomendatzen ikastetxeetan telefonoak eta gainerako gailu digital mugikorrak erabiltzea, lortu nahi den helburu pedagogikoa pribatutasuna arriskuan jarri gabe lortzeko baliabide egokiagoak daudenean.

<https://www.aepd.es/guias/responsabilidades-uso-dispositivos-moviles-centros-docentes.pdf>

**- Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren ebazpena, 2024ko urriaren 16koa. PS-00001-2024.**

Bulegoak isuna jarri dio QUIRÓN PREVENCIÓN SLuri, laneko jazarpenagatiko bitartekaritza-prozesu batean langileen datu pertsonalak babesik gabe uzteagatik.

<https://www.aepd.es/documento/ps-00001-2024.pdf>



## Estatuko Administrazioiko Kontu-hartzailletza Nagusia (IGAE)

- **EBAZPENA, 2024ko urriaren 1ekoa, Estatuko Administrazioiko Kontu-hartzailletza Nagusiarena, Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren ebazpenaren bidez onetsitako Nazioarteko Auditoretza Arauak eta Kalitatea Kudeatzeko Nazioarteko Arauak Espainiako sektore publikora egokitzeko eta eguneratzeko prozesua ezartzen duena, bai eta nazioarteko arau horiekin batera argitaratutako terminoen glosarioa ere.**

Duela gutxi, Estatuko Administrazioiko Kontu-hartzailletza Nagusiaren (IGAE) web-orrian honako hau argitaratu da: Ebazpena, 2024ko urriaren 1ekoa, IGAErena, Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren (IGAC) ebazpenaren bidez onetsitako Nazioarteko Auditoretza Arauak (NIA) eta Kalitatea Kudeatzeko Nazioarteko Arauak (NIGC) Espainiako sektore publikora egokitzeko eta eguneratzeko prozesua ezartzen duena, bai eta nazioarteko arau horiekin batera argitaratutako terminoen glosarioa ere.. Ebazpen horren bidez, alde batetik, 1. eranskinean zehaztutako NIA-ES batzuk (zehazki, 250, 315, 540, 600, 610 eta 720) Espainiako sektore publikora egokitu nahi dira, eta, bestetik, gainerako NIA-ES-SP eta NIGC 1-ES-SP eta NIGC 2-ES-SP arauak eguneratu nahi dira.

<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/Control/CFPyAP/Documents/24-10-01%20Resoluci%C3%B3n%20inicio%20adaptaci%C3%B3n%20NIA-ES-SP%202025.pdf.xsig%20%28002%29.pdf>

## XEDAPEN ARAUEMAILEAK

### Estatuko legeria

- **Ebazpena, 2024ko urriaren 15ekoa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, 2025erako lan-egutegiko jaiegunen zerrenda argitaratzen duena (2024ko urriaren 18ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/18/pdfs/BOE-A-2024-21316.pdf>

- **4/2024 Lege Organikoa, urriaren 18koa, Europar Batasunean aurrekari penalei buruzko informazioa trukatzeari eta ebazpen judizial penalak aintzat hartzeari buruzko azaroaren 12ko 7/2014 Lege Organikoa aldatzen duena, aurrekari penalei buruzko Europako Informazio Sistemari (ECRIS) buruzko Europar Batasunaren araudira egokitzeko (2024ko urriaren 19ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/19/pdfs/BOE-A-2024-21414.pdf>



- **1085/2024 Errege Dekretua, urriaren 22koa, ura berrerabiltzeko erregelamendua onesten duena eta uraren kudeaketa arautzen duten zenbait errege-dekretu aldatzen dituena (2024ko urriaren 23ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/23/pdfs/BOE-A-2024-21701.pdf>

- **1086/2024 Errege Dekretua, urriaren 22koa, otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio-planeri eta -funtsei buruzko Erregelamendua aldatzen duena, enpleguko pentsio-planak bultzatzeko (2024ko urriaren 23ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/23/pdfs/BOE-A-2024-21702.pdf>

- **5/2024 Legea, urriaren 22koa, Estatuaren Titulartasuneko Irratiaren eta Telebistaren ekainaren 5eko 17/2006 Legea aldatzen duena, RTVE Korporazioan aplikatzekoa den araubide juridikoari buruzko premiazko neurriak hartzeko (2024ko urriaren 23ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/23/pdfs/BOE-A-2024-21699.pdf>

- **Senatuko Erregelamenduaren erreforma, 56. artikulua aldatzen duena eta 56 ter eta 189 bis artikulua berriak txertatzen dituena, zeinek Senatuak Presidenteentzako Konferentzietako gai-zerrendan gaiak sartzea arautzen baitute (2024ko urriaren 28ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/28/pdfs/BOE-A-2024-22137.pdf>

- **2024ko urriaren 23ko Ebazpena, Idazkariordetzarena, auzitegi ekonomiko-administratiboaren eskumenen eremuan administrazio-jarduketa automatizatuak eta egiaztapenerako kode seguruaren sistema ezartzen dituena (2024ko urriaren 28ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/28/pdfs/BOE-A-2024-22139.pdf>



- **1101/2024 Errege Dekretua, urriaren 29koa, Informatzailea Babesteko Agintaritza Independentearen (AAI) Estatutua onesten duena (2024ko urriaren 30eko BOE).**

Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzko otsailaren 20ko 2/2023 Legearen azken xedapenetako hamaikagarrenean ezarritakoarekin bat etorriz, Informatzailea Babesteko Agintaritza Independentearen (AAI) Estatutua onesten da.

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/30/pdfs/BOE-A-2024-22298.pdf>

- **3/2024 Legea, urriaren 30ekoa, alboko esklerosi amiotrofikoa eta konplexutasun handiko beste gaixotasun edo prozesu itzulezin batzuk dituzten gaixoen bizi-kalitatea hobetzeko (2024ko urriaren 31ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/31/pdfs/BOE-A-2024-22438.pdf>

- **1117/2024 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, 2024ko urriaren 29an eta 30ean izandako uholdeak direla-eta dolu ofiziala deklaratzeko duena (2024ko urriaren 31ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/31/pdfs/BOE-A-2024-22439.pdf>

## **Euskal Autonomia Erkidegoa**

- **EBAZPENA, 2024ko irailaren 24koa, Arartekoarena, zeinaren bidez onartzen baita arartekoaren, haren ondokoaren eta Arartekoa erakundeko langileen balio eta printzipio etikoen kodea (2024ko urriaren 9ko EHAA).**

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/10/2404637e.pdf>

- **EDIKTUA, 32/2024 administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren ondoriozkoa. Horren bidez, baietsi egiten da zati batean deuseztatzea azaroaren 7ko 168/2023 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sisteman itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituen (2024ko urriaren 15eko EHAA).**

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/10/2404721e.pdf>



## Arabako Lurralde Historikoa

- Foru Gobernu Kontseiluaren 23/2024 Foru Dekretua irailaren 17koa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzeagatiko laguntzen oinarri arautzailei (2024ko urriaren 7ko ALHAO).

[https://www.araba.eus/botha/Boletines/2024/114/2024\\_114\\_03038\\_e.pdf](https://www.araba.eus/botha/Boletines/2024/114/2024_114_03038_e.pdf)

## Bizkaiko Lurralde Historikoa

- Ahaldu Nagusiaren 176/2024 FORU DEKRETUA, urriaren 4koa, zeinaren bidez deklaritzen baita zein diren egun baliogabeak Bizkaiko Foru Aldundiaren eremuan 2025ean zehar egin edo aurkeztu behar diren egintza, tramite edo errekurtsio guztietarako (2024ko urriaren 14ko BAO).

[https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao\\_bob/2024/10/14/l-1021\\_eus.pdf?hash=d1cf33814043b07ea694c566b36e351f](https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2024/10/14/l-1021_eus.pdf?hash=d1cf33814043b07ea694c566b36e351f)

## Gipuzkoako Lurralde Historikoa

- 28/2024 Foru Dekretua, urriaren 1ekoa, Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa (2024ko urriaren 11ko GAO).

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/10/11/c2407260.pdf>

- 29/2024 Foru Dekretua, urriaren 1ekoa, Jasangarritasun Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa (2024ko urriaren 11ko GAO).

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/10/11/c2407261.pdf>

- 32/2024 Foru Dekretua, urriaren 1ekoa, Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa (2024ko urriaren 11ko GAO).

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/10/11/c2407262.pdf>

- 33/2024 Foru Dekretua, urriaren 1ekoa, Gobernantza Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa (2024ko urriaren 11ko GAO).

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/10/11/c2407263.pdf>



- **34/2024 Foru Dekretua, urriaren 1ekoa, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa (2024ko urriaren 11ko GAO).**

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/10/11/c2407264.pdf>

- **37/2024 Foru Dekretua, urriaren 1ekoa, Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa (2024ko urriaren 11ko GAO).**

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/10/11/c2407265.pdf>

- **41/2024 Foru Dekretua, urriaren 1ekoa, Ogasun eta Finantza Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa (2024ko urriaren 11ko GAO).**

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/10/11/c2407267.pdf>

- **42/2024 Foru Dekretua, urriaren 1ekoa, Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa (2024ko urriaren 11ko GAO).**

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/10/11/c2407268.pdf>

- **45/2024 Foru Dekretua, urriaren 1ekoa, Lurralde Oreka Berdeko Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa (2024ko urriaren 11ko GAO).**

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/10/11/c2407269.pdf>

- **48/2024 Foru Dekretua, urriaren 1ekoa, Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa (2024ko urriaren 11ko GAO).**

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2024/10/11/c2407270.pdf>



## Nafarroako Foru Komunitatea

- **12/2024** Foru Legea, irailaren 30ekoa, Osasun Departamentuari eta haren erakunde autonomoi atxikitako osasun arloko langileen lanbide karreraren sistema ezartzen duena, salbu eta fakultatibo espezialistena, osasun arloko beste fakultatibo batzuen eta osasun arloko diplomadunena (2024ko urriaren 8ko NAO).

<https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5957296>

- **13/2024** Foru Legea, irailaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzen duena (2024ko urriaren 8ko NAO).

<https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5957298>

- **14/2024** Foru Legea, urriaren 1ekoa, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuak zenbait departamenturi guztira 358.282 euroko aparteko kreditua ematekoa (2024ko urriaren 8ko NAO).

<https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2024/204/2>

- **302E/2024** Foru Agindua, urriaren 9koa, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldearen Plan Gidaria onesten duena 2024-2027 aldirako (2024ko urriaren 28ko NAO).

<https://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=5957338>





EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



## BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUEN TOKIKO EREMUARI BURUZKO LEGERIA

### Andaluziako Autonomia Erkidegoa

- Ebazpena, 2024ko urriaren 25ekoa, Gizarte Babeseko eta Lehenasunezko Jarduketako Auzuneetako Zuzendaritza Nagusiarena, Zuzendaritza Nagusi honen 2024ko ekainaren 21eko Ebazpena osatu eta aldatzen duena. Ebazpen horren bidez, urtarrilaren 23ko 93/2024 Errege Dekretuaren bidez araututako aldi iragankorrean Oinarrizko Laguntza Materialaren Programan sartzeko eta programa horretara bideratzeko koordinazioa ezartzen da. Errege-dekretu horren bidez, Espainiako Gurutze Gorriari dirulaguntza bat zuzenean ematea arautzen da, 2024. urtean Oinarrizko Laguntza Materialaren Europako Plus Gizarte Funtzaren Programa (Oinarrizko Programa) abian jar dezan (2024ko urriaren 30eko BOJA).

[https://www.juntadeandalucia.es/eboja/2024/212/BOJA24-212-00004-53193-01\\_00310142.pdf](https://www.juntadeandalucia.es/eboja/2024/212/BOJA24-212-00004-53193-01_00310142.pdf)

### Kanarietako Autonomia Erkidegoa

- 4/2024 Lege Dekretua, apirilaren 1ekoa, Kanarietako zeharkako zerga orokorrean zero tasaren aplikazioa luzatzen duena, La Palma uhartean hainbat jarduera suspertzeko eta COVID-19aren ondorioei aurre egiteko (2024ko urriaren 11ko BOE).

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/11/pdfs/BOE-A-2024-20761.pdf>

### Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoa

- 71/2024 Dekretua, urriaren 22koa, honako dekretu hauek aldatzen dituena: 3/2016 Dekretua, urtarrilaren 26koa, Gaztela-Mantxako Autonomia Bultzatzeko eta Mendekotasuna Artatzeko Sistemaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen katalogoa ezartzen duena eta zerbitzuen intentsitatea eta aplikatu beharreko bateragarritasun-araubidea zehazten dituena; eta 1/2019 Dekretua, urtarrilaren 8koa, Gaztela-Mantxako Autonomia Bultzatzeko eta Mendekotasuna Artatzeko Sistemaren zerbitzu eta prestazio ekonomikoak eskuratzeko eskubidea eta mendetasun-egoera aitortzeko prozedurari buruzkoa (2024ko urriaren 29ko DOCM).

[https://docm.iccm.es/docm/descargarArchivo.do?ruta=2024/10/29/pdf/2024\\_8513.pdf&tipo=rutaDocm](https://docm.iccm.es/docm/descargarArchivo.do?ruta=2024/10/29/pdf/2024_8513.pdf&tipo=rutaDocm)



## Valentziako Autonomia Erkidegoa

- **4/2024 Legea, uztailaren 26koa, honako hauek aldatzen dituena: 1/2022 Legea, apirilaren 13koa, Valentziako Erkidegoko gardentasunari eta gobernu onari buruzkoa, eta 8/2016 Legea, urriaren 28koa, hautatuak ez diren kargu publikodunen bateraezintasunei eta interes-gatazkei buruzkoa (2024ko urriaren 7ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/07/pdfs/BOE-A-2024-20162.pdf>

- **5/2024 Legea, uztailaren 26koa, Valentziako Erkidegoko Konkordiarena (2024ko urriaren 7ko BOE).**

<https://www.boe.es/boe/dias/2024/10/07/pdfs/BOE-A-2024-20163.pdf>

## JURISPRUDENTZIA

### Europar Batasuneko Justizia Auzitegia

- **JUSTIZIA AUZITEGIAREN EPAIA (zazpigarren sala), 2024ko urriaren 17koa. C-408/2023 auzigaia.**

Adinaren ondoriozko diskriminazioaren debekua. 2000/78 Zuzentarauak ez dio kontra egiten le-gelari-notario lanposturako lehen izendapenerako 60 urteko gehieneko adin-muga ezartzen duen estatu-araudiari, betiere araudi horrek enplegu-politikako eta lan-merkatuko helburu legi-timoa badu.

<https://curia.europa.eu/juris/document/document.jsf?text=&docid=291253&pageIndex=0&do clang=ES&mode=lst&dir=&occ=first&part=1&cid=1054649>

- **JUSTIZIA AUZITEGIAREN EPAIA (bederatzigarren sala), 2024ko urriaren 24koa. C-513/23 auzigaia.**

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) 2024ko urriaren 24ko epaian ( C-513/23), ebatzi du nahitaezkoa dela kontratu publikoen zehaztapen teknikoetan «edo baliokidea» aipamena sartzea, baita arau harmonizatuei erreferentzia egiten zaienean ere.



Europar Batasuneko (EB) funtsekin finantzatutako obra-kontratu baten lizitazioaren ondorioz egin zen epaia. Bertan, botere adjudikatzailerak (Bulgariako udala) kontratuaren zehaztapen tekniko gisa eskatu zuen materialek arau harmonizatuetan ezarritako baldintzak betetzea.

Kontratua gauzaturik, kontratuaren jarraipenaz eta auditoretzaz arduratzen zen organismoak diruz lagun zitezkeen gastuen finantza-zuzenketa bat ezarri zuen, alegia, emandako funtsen % 25, kontratua kontratazio publikoari buruzko Bulgariako legearen arabera gauzatu ez zela iritzita. Lege horrek argi eta garbi ezartzen du kontratu publiko baten zehaztapen tekniko oro, arau bati erreferentzia eginez formulatua, «edo balioidea» adierazpenarekin osatu beharko dela.

<https://curia.europa.eu/juris/liste.jsf?nat=or&mat=or&pcs=Oor&jur=C%2CT%2CF&num=513%252F23&for=&jge=&dates=&language=es&pro=&cit=none%252CC%252CCJ%252CR%252C2008E%252C%252C%252C%252C%252C%252C%252C%252C%252Ctrue%252Cfalse%252Cfalse&oqp=&td=%3BALL&avg=&lg=&page=1&cid=1031879>

**- JUSTIZIA AUZITEGIAREN EPAIA (zazpigarren sala), 2024ko urriaren 24koa. C-441/23 auzigaia.**

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, 2024ko urriaren 24ko epaian (C-411/23 auzigaia), Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak egindako judizio aurreko erabaki-eskaera bati buruzko erabakia hartu zuen. Eskaera hori aldi baterako laneko enpresa bateko langileen lan-baldintzei eta eskubideei buruzkoa zen, bai eta enpleguaren arloan gizonen eta emakumeen arteko aukera- eta tratu-berdintasunaren printzipioari buruzkoa ere.

<https://curia.europa.eu/juris/document/document.jsf?mode=LST&pageIndex=0&docid=291563&part=1&doclang=ES&text=&occ=first&cid=1031879>

**- JUSTIZIA AUZITEGIAREN EPAIA (Sala Nagusia), 2024ko urriaren 22koa. C-652/22 auzigaia.**

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (aurrerantzean, EBJA) 2024ko urriaren 22ko epaia eman du (C-652/22). Bertan, baztertu egiten du Europar Batasunarekin nazioarteko akordiorik sinatu ez duten hirugarren herrialdeetako enpresek kontratazio publikoari buruzko Europar Batasuneko zuzentarauak arrazoitzat aipatzea, parte diren adjudikazio-prozedura baten aurkako auzian.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/25/EB Zuzentarauaren esparruan —uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan jarduten duten entitateen kontratazioari buruzkoa da eta 2004/17/EE Zuzentaraua indargabetzen du— (aurrerantzean, 2014/25 Zuzentaraua), Kroaziako estatu kideko adjudikazio-prozesu bati Turkiako konpainia batek jarritako demandari erantzuten dio epaitzak.



<https://curia.europa.eu/juris/document/document.jsf?text=&docid=291384&pageIndex=0&doClang=ES&mode=lst&dir=&occ=first&part=1&cid=1031879>

## Auzitegi Gorena

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4712/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1524/2024 Epaia, 2024ko irailaren 30ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Enpresak autolikidazioak zuzentzeko eta hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren kuotak itzultzeko eskatu zuen, 2014tik 2015era bidegabe jasan zituela uste baitzuen. Arabako Foru Aldundiak eskaera ukatu, eta argudiatu zuen ez zuela eskumenik berak ezarri eta kudeatu ez zuen zerga baten itzulketa kudeatzeko, eta erreklamazioa Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ebatzi behar zuela. Enpresak erabakiaren aurka egin zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, eta hark errekurtsioa ezetsi zuen. Foru-ogasunak zerga itzultzeko eskumenik ez zuela berretsi zuen. Ondoren, enpresak kasazio-errekurtsioa jarri zuen Auzitegi Gorenean, eta hark onartu egin zuen kasazio interesaren auzia: itzultzeko eskaerak ebazteko eskumenari buruzkoa, eta tasa autonomikoa Europako araudiarekin bateragarria izateari buruzkoa.

Enpresari arrazoia eman zaio; izan ere, Arabako Foru Ogasunak hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren sarrera bidegabeak zuzentzeko eta itzultzeko eskaerak ebazteko eskumena duela zehazten da, tasa autonomiko propiorik ezarri ez badu ere. Epaitza baieslea da, jarduketan atzeraeragina agintzen delako, instantzia-salak zehaztu ditzan bidegabe jasanarazitako zenbatekoak eta dagokion itzulketa egin dadin.

Epaia argitu egiten du foru-ogasunek zer eskumen duten tributuen kudeaketan eta itzulketan, baita zerga-tasa autonomikorik ez dagoenean ere, eta hidrokarburoen gaineko zerga bereziaren tasa autonomikoa Europako araudiarekin bateraezina dela ezartzen du; horrek eragina izan dezake tributu-legeriaren interpretazioan, eskumen autonomikoen testuinguruan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1a81d94206567a7da0a8778d75e36f0d/20241010>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4550/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1535/2024 Epaia, 2024ko irailaren 30ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

2016ko martxoaren 23an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (ZAEA) administratzaile baten erantzukizun solidarioa deklaratu zuen enpresa baten ondasunak ezkutatzeagatik; 2.465.638,78 euroko zerga-zorra sortu zen. Erabaki hori berretsi egin zuten Auzitegi Ekonomiko



Administratibo Zentralak eta, ondoren, Auzitegi Nazionalak, zeinak administratzaileak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezetsi baitzuen. Administratzaileak alegatu zuen fakturak baliozkoak zirela eta ez zegoela haien faltsutasunaren frogarik.

Ezetsi egiten da administratzaileak jarritako berrikuspen-errekurtsoa, ez baita frogatu hura aurkezteko legezko epeak bete direnik, eta ez baita aurkeztu erabakigarritzat jotzeko baldintzak betetzen dituen dokumenturik. Epaiak berresten du largespen-autoa ezin dela dokumentu erabakigarritzat hartu testuinguru horretan, ez baita frogatu atxikia izan denik ezinbesteko kausagatik. Epaitzaren arabera, berrikuspen-errekurtsoa ezestekoa da; administratzailearen erantzukizun solidarioari eusten zaio.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5c313c3538acc9f5a0a8778d75e36f0d/20241004>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4549/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1534/2024 Epaia, 2024ko irailaren 30ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Demandatzaileak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen ondarezko erantzukizuneko erreklamazio baten ustezko ezespenez aurka, SACYLek emandako asistentzia sanitario desagokiagatik. Semearen gaixotasun zeliakoa 2018 baino lehen diagnostikatu behar zela alegatu zuen. Administrazioarekiko Auzien Salak errekurtsoa ezetsi, eta laguntza *lex artis*-en arabera eman zela argudiatu zuen, sintomak 2018ra arte ez baitziren gaixotasun zeliakoaren susmoak hartzeko modukoak.

Ezetsi egiten da berrikuspen-demanda, aurkeztutako dokumentuak ez dituelako betetzen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legearen 102.1.a) artikuluan ezarritako baldintzak. Izan ere, ez da berrikusi nahi den epaiaren aurrekoa, eta ez da atxikia izan ezinbesteko kausagatik. Epaitzaren arabera, ezestekoa da, ez baita frogatu dokumentua erabakigarria denik epai irmoaren erabakia aldatzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/7d73d846bbcf4194a0a8778d75e36f0d/20241004>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4746/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1541/2024 Epaia, 2024ko urriaren 1ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Bizkaiko Foru Aldundiak errekurtsoa jarri zuen Operadora de Servicios de Telecomunicación Opera SLren egoitza fiskala Bizkaira aldatzea ukatu zuen Arbitraje Batzordearen ebazpenaren aurka.



Errekurtsua ezetsi eta Arbitraje Batzordearen erabakia berresten da. Ekonomia Itunaren 12/2002 Legearen 43.4 artikuluan oinarritzen da, zeinak ezartzen baitu egoitza fiskala kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza egiten diren lekuan zentralizatu behar dela, eta ondorioztatzen da sozietatearen egoitza fiskala Logroño zegoela, ez Bizkaian.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/4ab2a073ccf4efd3a0a8778d75e36f0d/20241011>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4766/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1542/2024 Epaia, 2024ko urriaren 1ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

A Coruña-ko Hipika Kirol Elkarteak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu zuen Udala Auzitegi Ekonomiko Administrazioak 2019ko eta 2020ko ekitaldietako ondasun higiezinaren gaineko zergaren likidazioei buruzko haren erreklamazio ekonomikoa ezetsi izanaren aurka. Elkarteak alegatu zuen ondasun higiezinaren gaineko zergaren salbuespen objektibo baterako eskubidea zuela. Argudiatu zuen erabilitako instalazioak defentsa nazionalari lotuta zeudela eta kirol-jardueretarako eta pertsonal militarren proba fisikoetarako erabiltzen zirela. A Coruña-ko Administrazioarekiko Auzien 4 zenbakiko Epaitegiak elkartearen aldeko epaitza eman zuen. Ondasun higiezinaren gaineko zergaren salbuespena onartu eta aurkaratutako likidazioak baliogabetu zituen. Hala ere, A Coruña-ko Udalak apelatu egin zuen erabaki hori, argudiatuz instalazioak ez zeudela defentsa nazionalari lotuta eta apelazio-errekurtsuaren zenbatekoa ez zela nahikoa, likidazioak 30.000 eurotik beherakoak zirelako. Apelazio-salak apelazioa onartu eta lehen auzialdiko epaia baliogabetu zuen, eta, horren ondorioz, elkarteak kasazio-errekurtsua jarri zuen Auzitegi Gorenean.

Arrazoiak ematen zaio A Coruña-ko Hipika Kirol Elkarteari; izan ere, Auzitegi Gorenak erabakitzen du lehen auzialdiko epaia irmoa dela eta apelazio-errekurtsuaren zenbatekoa ez zela zehaztugabea, ondasun higiezinaren gaineko zergaren likidazio espezifikoena baitzen. Epaitzaren arabera, kasazio-errekurtsua baiestekoa da; apelazio-epaia baliogabetzen da, eta Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren erabakiari eusten zaio. Erabaki horrek 2019ko eta 2020ko ekitaldietarako ondasun higiezinaren gaineko zergaren salbuespena aitortzen zuen.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e21f34c4a7f9f980a0a8778d75e36f0d/20241011>



**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4773/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1545/2024 Epaia, 2024ko urriaren 2koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Udaltzaingoko funtzionario bati behin-behinean funtzioak eten zizkioten, osasun publikoaren aurkako delitu bat egotzi zitzaiolako prozesu penal batean. Dolozko delitu batengatik inputatuta zegoen bitartean zerbitzu aktibora itzultzeak eragin zezakeen alarma soziala dela-eta gertatu zen etendura. Administrazioarekiko zenbait auzi-errekurtso aurkeztu ziren etenduraren aurka, eta, azkenean, Bilboko Udalak apelazioa aurkeztu zuen kautelazko neurria baliogabetu zuen erabakiaren aurrean. Auziaren gai nagusia behin-behineko etenduraren iraupena eta uneko prozedura penala izapidetu bitartean aplikatu ahal daitekeen izan zen.

Arrazoa ematen zaio administrazioari, argudiatuz funtzioak eteteko kautelazko neurria legezkoa dela eta prozedura penalak irauten duen bitartean luza daitekeela, neurri hori hartzea justifikatu zuten inguruabarrek bere horretan dirautelako. Epaitzaren arabera, administrazioak jarritako kasazio-errekurtsoa baiestekoa da: apelazio-epaia baliogabetzen da, eta funtzionarioaren etendura mantendu zuen administrazio-ebazpenaren legezotasuna berresten da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/26532d23bb502035a0a8778d75e36f0d/20241011>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4762/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1549/2024 Epaia, 2024ko urriaren 2koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Funtzionarioen Zentral Sindikal Independentek aurkaratu egin zuen Teknikarien Kidegoan (Topografia A2 aukera) bitarteko langileak hautatzeko lan-eskaintza publikoa, Andaluziako Enplegu Zerbitzuak argitaratua. Eskaintza 1/2021 Instrukzioak arautzen zuen, eta horrek ezartzen zituen hautaketa-irizpideen artean, berdinketa hausteko irizpide eztabaidagarri bat sartzen zen, hautagaien inskripzio-datan oinarritua.

Arrazoa ematen zaio administrazioari, eta argudiatzen da berdinketa hausteko irizpidea, eztabaidagarria bada ere, titulazio- eta prestasun-irizpideak ebaluatu ondoren bakarrik aplikatzen dela, eta ez dituela printzipio konstituzionalak urratzen. Epaitzaren arabera, kasazio-errekurtsoa baiestekoa da; instantzia-epaia baliogabetzen da, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezesten da; izan ere, ondorioztatzen da hautaketa-prozedurak ez dituela alegatutako oinarritzko eskubideak urratzen.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/254d64dd256c0bc5a0a8778d75e36f0d/20241011>



**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4865/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1560/2024 Epaia, 2024ko urriaren 3koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak baietsi egiten du jarritako errekurtsua, eta deuseztat jotzen du 667/2023 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, kontratazio publikoan klausula sozialak sartzea garatu eta hobetzeko ministerio arteko batzordea sortzen duena. Izan ere, entzunaldiaren izapidean, entzunaldia eman behar zitzaien enpresa-erakundeei, errege-dekretu horren eduki osoari edo zati bati buruzko ekarpenak eta proposamenak egin ahal izateko, bai eta haren xedeari, sortzen duen batzordearen izaerari, bete beharreko funtzioei, osaerari, barne-funtzionamenduari, hirugarrenek gizarte-solaskide gisa duten parte-hartzeari eta orain aurkaratzen den arauak arautzen duen guztiari buruz ere.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/707bf322009a9c35a0a8778d75e36f0d/20241018>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4903/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1566/2024 Epaia, 2024ko urriaren 7koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak deklaritzen du ezen, arauz prozedura-zehaztapen jakin batzuk ezartzen direnean —orain interesatzen zaigunerako, prozeduraren hasiera izapidetzeko onartzeko erabakiaren bidez egingo dela; ebazteko epea sei hilabetekoa izango dela erreklamatzailerari izapidetzeko onartzeko erabakia jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita; eta epe hori igarotakoan interesdunak baietsizat jo ahal izango duela bere erreklamazioa (isiltasun positiboa)—, eskubideak baliatzeko eskaera bati jaramonik egin ez zaiola egiaztatzen duten prozedurei dagokienez, manuak ez duela ezartzen EBko ordenamendutik eratorritako eskubideak baliatzeko ezarritako prozeduretarako estatuko ordenamenduko eskubide onartuak baliatzeko finkatutakoaz bestelako tratamendurik; izan ere, guztiak araubide beraren mende daude. Beraz, ezin da esan alderik dagoenik ezarritako prozeduran barne-antolamenduko eta EBko zuzenbideko eskubide onartuei dagokienez; orduan, ez dago arrazoirik baliokidetasun-printzipioaren balizko haustura aztertzeke. Desberdintasuna barne-zuzenbideko bi arauen artean nabari da: alde batetik, ezarritako prozedura-arau erkidea dago, eta, bestetik, arau espezifikoa, edo, bestela, berezia. Behin bien arteko alderaketan hierarkia-printzipioa aipa daitekeela baztertuta, datu pertsonalen babesaren arloko erreklamazio-prozedurei DPBEBLOren berariazko erregulazioa aplikatu behar zaie, zeina, geroagoko araua izateaz gain, espezialitateagatik gailendu behar baita, prozedura mota horri berariaz dagokion araua delako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/6b8be6c0f7414013a0a8778d75e36f0d/20241018>





**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4902/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1565/2024 Epaia, 2024ko urriaren 7koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak deklaratu du arrazoizkoa dela Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 2017ko irailaren 5eko Barbulescu 2 epaian jasotako doktrina enplegu publikoaren eremura proiektatzea, hargatik eragotzi gabe estatutu-araubidearen berezitasunak kontuan hartu behar izatea. Datu pertsonalak interesdunaren baimenik gabe tratatzeagatik arau-haustea administrazio publiko bati egozten zaionean, arau-hausterik egon ez dela ondorioztatzeko, ez da nahikoa administrazio jarduleak baimena eskatzearen salbuespen-kasuren bat aipatzea; aitzitik, alegatutako salbuespen-kasua benetan betetzen dela justifikatu behar du.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/459bf5ba4eda73d0a0a8778d75e36f0d/20241018>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4856/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1563/2024 Epaia, 2024ko urriaren 7koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak jurisprudentzia-doktrina errepikatzen du peritu-tasazio kontraesankorraren prozedura iraungipenez amaitzearen ondorioei dagokienez, haren gehieneko iraupen-epea gainditzea zerga-administrazioari egotz dakioken kausa batengatik denean, baldin eta horrek berekin badakar automatikoki kentzea ikuskapen-prozedura nagusiaren etendura, eta, ikuskapen-prozedura horretan, horri aplika dakioken gehieneko iraupen-epea gainditzea.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8d78535d671546aca0a8778d75e36f0d/20241018>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4829/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1564/2024 Epaia, 2024ko urriaren 7koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak berrikuspen-demanda baiesten du, eta aurkaratutako epaia deuseztatzen du; izan ere, epai irmoak berrikusteko aukera ematen da Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Europako Hitzarmeneko eskubide onartuen urraketa deklaratu duenean, kasu honetan bezala. Ondorioztatzen da demandatzaileari benetako babes judizialerako eskubidea kendu zitzaiola, eta horrek zuzenean eragiten diola bere jabetzari, eraispen partzialerako agindua dela eta.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/30c23cc84bce1fefa0a8778d75e36f0d/20241017>



**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4893/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1567/2024 Epaia, 2024ko urriaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, 2004ko Sozietateen gaineko zergari buruzko Legearen testu bateginaren aplikazio-eremuan, berrikuntza teknologikoagatiko kenkarirako txostenak alderdi guztietan lotzen du zerga-administrazioa, hau da, ez bakarrik proiektua kontzeptu horren osagai gisa kalifikatzeari dagokionez, baita kontsultaren xede den organoan aurkeztu eta ebaluazio positiboa jaso duten inbertsioei eta gastuei dagokienez ere. Bereziki, zerga-administrazioako organoek ezin dituzte txosten lotesle horiek ezeztatu edo baztertu, ez proiektuak kenkari fiskala merezi dutela kalifikatzerakoan, ez eta proiektuan edo proiektuetan sartutako eta kontsultarekin batera aurkeztutako gastuei dagokienez ere. Horren harira, nahikoa da kontuan hartzea txosten lotesleak —Administrazioarentzat— behar diren elementu guztiak biltzen dituela onura jasotzen duen sozietateak zergaren kuota osoan aplikatu ahal izateko kenkaria, Administrazioaren barne-organoen iritziek geroago zuzentzeko beldurrik gabe. Administrazioaren irizpen batek eskubide bat edo eskubide bat izateko baldintzak aitortzen baditu, eta irizpen hori loteslea bada, lege bidez, administrazio jaulkitzailearentzat —dena barne hartzen duen zentzu zabalean—, ezin da ezeztatu Administrazioaren beraren kontrako beste txosten baten bidez. Kontraesan hori, irizpena arbitrarioa edo ilogikoa den oso salbuespezko kasuetan —kasu honetan ez dago halakorik—, zerga-administrazioak froga bidez balia badezake ere (ez dugu horri buruzko iritzirik ematen), ez da onargarria bere barnean sortutako froga. Baldintza horietan, alegia, ondorio dialektikoetarako froga hori egin daitekeela onartzen bada ere, ezin da agiri bidezko frogatzat hartu, ezta justizia-azitegi batean aurkeztu ere, administrazio-espeditentean sartzen diren dokumentuen artean. Zehazki, EAlren txostena ez dator instantzian eskatutako eta kasazio honetan errekurritutako administrazioetik independentea den organo batetik, eta ez dago independentzia edo autonomia funtzionalerako marjina duten —ondorioak inpartzialak izateko baldintza— funtzionarioen ardurapean.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1912943b88fe0f29a0a8778d75e36f0d/20241018>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4962/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1569/2024 Epaia, 2024ko urriaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak deklaritzen duenez, COVID-19ak eragindako krisi sanitarioaren egoera kudeatzeko alarma-egoerari buruzko estatu-araudia, administrazio-prozedurak izapidetzeko aurreikusitako epeak etetea eta interpretatzea ezartzen duena, guztiz aplikagarria da araututako aurretiazko ikerketa-jarduketetan Datuak Babesteko Agintaritzaren aurrean datuak babesteko arauak urratzeagatik hasitako prozesuan. Datu pertsonalen tratamenduaren segurtasunari buruzko printzipioa honako jokabide hauei aplikatu dakieke: datuen tratamenduaren arduradunak edo eragileak edo haren langileak SIM txartelean jasotako datu pertsonaletarako sarbidea



hirugarrenei ematea, iruzurrez lortutako bikoiztuak sortuta; izan ere, ez dira baimenik gabeko edo legez kontrako tratamendua saihesteko segurtasun-neurri egokiak hartzen, eta datuen osotasuna eta konfidentzialtasuna arriskuan jartzen da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3e319ad213626299a0a8778d75e36f0d/20241025>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4954/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1568/2024 Epaia, 2024ko urriaren 8koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, kirolarien osasun fisikoaren edo mentalaren egoerari buruzko informazioaren inguruko datu pertsonalak, dopin-kontrolako tekniken aplikazioarekin lotutakoak, hala nola dopin-substantzien presentziaren detekzioari buruzkoak edo dopinaren aurkako proba analitikoaren emaitzei buruzkoak, osasunari buruzko datuen tipologiakoak edo kategoriakoak dira, datu horiek tratatzeak, lagatzeak edo jakinarazteak datu pertsonalak babesteari buruzko Estatuko araudiak eta Europar Batasuneko legeriak jasotzen duten babes indartua izan dezan. Izan ere, kirolarien osasun-egoeraren inguruko datuei dagokienez, «osasunari buruzko datuen» nozioa txertatzeari esker, nahiz eta Europar Batasuneko araudiak ez duen xedapen espezifikorik dopina kontrolatzeko tekniken aplikazioarekin lotutako datuei buruz, zentzu zabalean definitzen da osasun-datuen tratamendua, eta, hortaz, pertsona baten osasunaren alderdi fisiko zein psikiko guztiei buruzko informazioa biltzen du.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f8ddfc0cdc19f9a3a0a8778d75e36f0d/20241025>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4965/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1577/2024 Epaia, 2024ko urriaren 9koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak baietsi egiten du 2023ko ekitaldiko enplegu publikoaren eskaintza onesten duen uztailaren 11ko 625/2023 Errege Dekretuaren aurka jarritako errekurtsioa, eta haren II. eranskina baliogabetzen du; izan ere, ez ditu errespetatzen Justizia Administrazioako letraduen kidegoan araz ezartzen diren sarbide libreko eta barne-sustapeneko modalitateen artean plazak banatzeko ehunekoak. Banaketa horrek enplegu publikoaren eskaintza eta dagozkion deialdiak errespetatu behar ditu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/7b7417c0f57c8b5da0a8778d75e36f0d/20241025>



**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4697/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1519/2024 Epaia, 2024ko irailaren 26koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak deklaratu du aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren deialdia egin duen autonomia-erkidegoan emandako zerbitzuen puntuazio handiena ez justifikatzeak berdintasunaren eta lehia askearen printzipioa urratzen duela. Izan ere, deialdia egin duen administrazioan esperientziari egotz dakioken balio handiena ezin da erabatekoa izan, edo ezin du gainditu onargarriaren muga; gainera, aldea justifikatu egin behar da. Justifikatzeko, azaldu egin behar da zergatik izan behar duen jardura berak balorazio handiagoa, eta zer neurritan, deialdia egin duen administrazioan edo beste batean burutu den kontuan izanda.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a8b4c9e364d43581a0a8778d75e36f0d/20241004>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4869/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1574/2024 Epaia, 2024ko urriaren 9koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak interpretazio-irizpidetzat jotzen du ezen, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ondoren, organo berrikusle ekonomiko-administratibo baten aurrean aurkeztutako erreklamazioaren administrazio-isiltasuneko ustezko ezespeneren aurka, organo horrek berriazko ebazpena eman dezakeela, epez kanpo, erreklamazioa ez dela onartzen deklaratzeko, errekurtsoa jartzeko gehieneko epea gainditu dela egiaztatzen denean. Organo berrikuslearen berriazko ebazpenak, epez kanpo emandakoak, zeinak deklaratu baitu erreklamazioa ez dela onargarria epez kanpokoa delako, ez du *reformatio in peius* delakorik egiten, ez eta ordenamendu juridikoaren beste urraketarik ere, gaiaren funtsa berrikusteko baliozko eta epean jarritako erreklamazioa behar baita. Kasu horietan, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ebazteko eskumena duen *a quo* epaileak administrazio-organok epez kanpo deklaratuak onartezintasunari buruzko erabakia zuzenbidearen arabera den epaitu behar du, eta, zuzenbidearen arabera ez dela ondorioztatzen badu, auziaren funtsa aztertu.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/efe0e4bc132570cba0a8778d75e36f0d/20241018>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4863/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1587/2024 Epaia, 2024ko urriaren 10koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi egin du jarritako errekurtsoa, eta berretsi egin du estatu legegilearen ondare-erantzukizunagatiko kalte-ordainen eskaeren ezespena, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari dagokionez; izan ere, ordenamendu juridikotik zergaren manu jakin batzuk



kentzeak ez du esan nahi zuzenbidearen aurkakoa denik hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga gisa zenbateko jakin batzuk ordaintzea, edo zenbateko horiek, baliokidetasunagatik, benetako kaltea direnik ondare-erantzukizunaren ikuspegitik. Ondorio horretara iristeko, zerga-antolamenduan ezarritako frogabideen bidez egiaztatu behar da zerga-egitatea ez dela gertatu, edo zerga-egitatearen zenbatekoa ez denean Administrazioak zenbatespen objektiboko metodoarekin ezarritakoa, edo aplikatutako kalkulu-arauak okerrak zirela. Alderdi horietako bat ere ez zuen egiaztatu auzi-jartzaileak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b85fc3c22e2f7c89a0a8778d75e36f0d/20241018>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4982/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1593/2024 Epaia, 2024ko urriaren 11koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi egiten du jarritako errekurtsua, eta berretsi egiten du Kantauri Mendebaldeko, Guadalquivirreko, Ceutako, Melillako, Segurako eta Jucarreko eta Espainiako zatiko Kantauri Ekialdeko, Miño-Sileko, Dueroko, Tajoko, Guadianako eta Ebroko demarkazio hidrografikoen plan hidrológicoen berrikuspenera onesten duen urtarrilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuaren legezotasuna. Izan ere, besteak beste, hitzarmenak ez du inola ere ordeztzen nekazaritza-ureztaketarako ur gezatuak erabiltzea eta aprobeztatzea baimentzen duen administrazio-emakida, eta ez du baztertzen ur horiek plangintza hidrológicoaren mende jartzea. Legezko manu batek ere ez du aukera hori ezartzen. Hitzarmeneko xedapenek ez dute ondorio hori hausten, eta, gainera, berretsi egiten dute. Hitzarmenak ez dira administrazio-emakidak ordeztzen dituzten gaikuntza-tituluak, eta, beraz, ezin dute denboran proiektatu ez duten izaera eta ondorerik. Ez dago, beraz, salatzen den arbitrariotasunik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/61421b73a96f4509a0a8778d75e36f0d/20241025>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4991/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1607/2024 Epaia, 2024ko urriaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi egiten du demanda, eta berretsi egiten du ondarezko erantzukizunaren erreklamazioaren ezespenera, alarma-egoeraren eta horren luzapenera euste-neurriak aplikatzearen ondorioz jasandako kalteengatik; izan ere, alderdi auzi-jartzaileak jasan behar izan zituen neurri murriztaileak, jasandako ondare-kalteak eragin dituztenak, Konstituzioaren araberrakoak eta egoeraren neurrikoak izan ziren, egoeraren larritasuna ikusita, eta behar adinako orokortasun-maila izan zuten hartzaileei dagokienez. Hartzaileek neurri horiek jasateko



betebehar juridikoa izan zuten, jasandako kalteengatik inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortu gabe, eta Konstituzio Auzitegiak berariaz deklaritzen du hori.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ab9ed280517ceddea0a8778d75e36f0d/20241025>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 5022/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1606/2024 Epaia, 2024ko urriaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi egiten du jarritako errekurtsua, eta berretsi egiten du estatu legegilearen ondarezko erantzukizunagatiko kalte-ordainen eskaeren ezespena, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari dagokionez; izan ere, hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga gisa ordaindutakoa itzultzeak edo 182/2021 KA Eren datatik 26/2021 Errege Lege Dekretua argitaratu arte zerga likidatzeko ezintasunak eragindako balizko kalteak ez dira zuzenbidearen aurkakoak errekurritutako udalarentzat.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/4389e35888ae8f05a0a8778d75e36f0d/20241025>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4966/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1597/2024 Epaia, 2024ko urriaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi egiten du jarritako errekurtsua, eta berretsi egiten du Probintziako Hauteskunde Batzordearen erabakiaren aurka jarritako hauteskunde-errekurtsua ez onartzea. Izan ere, alderdi errekurtsogileak zuzen jokatu zuen hautetsiak aldarrikatzearen aurkako erreklamazioa Probintziako Hauteskunde Batzordean demanda gisa aurkeztean, eta, ez onartzeko erabakia orain baloratu gabe, ez onartzearen aurkako desadostasuna Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusian aurkeztu behar zuen —horixe egin zuen—, baina ez berraztertze-errekurtsu gisa, dela administrazioarekikoa, dela jurisdikzioarekikoa. Hori alde batera utzita, Probintziako Hauteskunde Batzordeak ebatzitakoa zuzentzera deitua ez dagoena Hauteskunde Batzorde Zentrala da, gora jotzeko errekurtsu baten bidez eta jada administrazio- eta hauteskunde-arlokoa ez den gai batean, jurisdikzio-arlokoa baizik, eta zentzua hartzen du araudian ezarritako salbuespenak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/bb9beb6617c0e212a0a8778d75e36f0d/20241025>



**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4964/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1596/2024 Epaia, 2024ko urriaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi egiten du Enpleguaren Malgutasunerako eta Enplegua Egonkortzeko Sarearen Mekanismoa garatu zuen uztailaren 11ko 608/2023 Errege Dekretuaren aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Izan ere, besteak beste, erregelamendu-mailako arauak enpresei etorkizuneko balizko kaleratze batekin lotutako betebeharrak ezartzen badie ere, horrek ez du esan nahi ordenamendu juridikoa urratzen denik, salatu den bezala. Egin-eginean ere, erregelamendu-arauak ez du aldaketa bat sartzen legez eta erregelamenduz aurreikusitako kaleratze-prozeduran. Erregelamendu-mailako arauak zerbait desberdina egiten du. Ez du izapide hertsatzailerik ezartzen enpresaren borondatea behartzeko; aitzitik, egoera sozial eta ekonomikoaren ondorioz bereziki larriak izan daitezkeen kasuetarako aurretiazko jarduketa bat txertatzen du, enpresak lantoki bat edo batzuk itxi behar izateari dagokionez, eta ez edozein itxiera, baizik eta jarduera behin betiko uztea eta berrogeita hamar langile edo gehiago kaleratzea dakarrena. Enpresaren aldeko mekanismoa da, argi eta garbi, ez haren jarduera murriztekoa.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/3bd9b4a1aa5ac792a0a8778d75e36f0d/20241025>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4929/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1605/2024 Epaia, 2024ko urriaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi egiten du jarritako berrikuspena; izan ere, errekurtsogileak ez du inolako azalpenik edo justifikaziorik ematen berrikusteko arrazoiari buruz, eta berrikuste-prozesua beste edo hirugarren auzialdi bihurtu nahi du. Hala, berriro ekiten zaio epai irmo baten bidez amaitutako eztabaidari, eta instantziako argudio berberak errepikatzen dira, auzitegia proba libreki baloratzeko funtzioan ordezkatzeko xedez. Errekurtsogileak berrikusteko egindako demandaren oinarri diren dokumentuak, bere horretan, ez dira hala. Ez dira berreskuratutako dokumentuak, berrikuspenaren xede diren epai irmoen aurrekoak; ez dira atxikita egon ezinbesteko arrazoiengatik edo ebazpen irmoaren bidez alderdi faboratuaren obra edo egintzagatik. Era berean, ezin dira inola ere erabakigarritzat jo, beste jurisdikzio-organo batzuek emandako epaiak direlako, eta haien irizpideak desberdinak edo kontraesankorrak izan daitezkeelako. Ez dago arrazoirik ezohiko bide honetatik berrikusteko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e0b09ca698d5361ba0a8778d75e36f0d/20241024>



**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4923/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1604/2024 Epaia, 2024ko urriaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi egiten du jarritako errakuntza judizialaren demanda, ez baita ikusten, orain aztertutako kasuan, demanda baiestea eragiteko moduko epaitze-akats hain kualifikaturik egon denik; izan ere, baliteke demandatzailea ez etortzea bat auzitegi epai-emaileak emandako erantzunekin, edo horiek eztabaidagarriak izatea, baina ezin dira inola ere ilogikotzat edo zentzugabetzat jo. Ez dira iritsi zuzenbidea interpretatzean eta aplikatzean hain akats larria, patentea, zalantzarik gabekoa, ukaezina edo ageri-agerikoa eragitera, non ondorio faktiko edo juridiko ilogikoak, irrazionalak, zentzugabeak edo absurdoak egon diren; hori gertatu behar da errakuntza judiziala aztertu eta deklaratzeko.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5991ed3c593cfbc2a0a8778d75e36f0d/20241024>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4921/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1603/2024 Epaia, 2024ko urriaren 14koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ez du onartzen jarritako berrikuspena, formalki arauz aurreikusitako epea bete ez delako, planteatutako berrikuspenaren arrazoiari dagokionez. Hiru hilabeteko epea da, berrikuspena sostengatzeko dokumentu erabakigarriak azaldu zirenetik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/ec025d5c84b86617a0a8778d75e36f0d/20241024>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4960/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1610/2024 Epaia, 2024ko urriaren 15ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, sozietate errekurtsogileak fabrikatutako ogiaren ezaugarriak kontuan hartuta, eta EBJAren jurisprudentzia ikusita, BEZaren tasa supermurriztua Espainiako araudi tekniko-sanitarioaren eta elikagai-araudiaren arabera berezitat jotzen den ogi bati ez aplikatzea —ogiarunt gisa kalifikatzeko eskatutako osagaiez gain, beste osagai batzuk ere erabiltzen dira ogi hori prestatzeko; ogi arrunta 100eko 4ko tasarekin zergapetzen da— BEZaren neutraltasun-printzipioaren aurka doa, lehia askea bermatzeari dagokionez, bai eta EBJAren doktrinaren aurka ere, zeinaren arabera tasa moten arteko aldea kontsumitzaile arruntak produktuen gainean duen ikuspegiaren arabera izan behar baita. Beraz, errekurtsogileak eskubidea du prestatzen eta merkaturatzen duen ogiari % 4ko tasa supermurriztua ezartzeko, kasuan aplikatu beharreko BEZaren legeari jarraikiz.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/e2d4e2931172f703a0a8778d75e36f0d/20241025>





**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4948/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1612/2024 Epaia, 2024ko urriaren 15koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak deklaratu du familia gurasobakarrei amatasun-baimena bikoizteko eskubidea aitortu behar zaiela, jaioberrien diskriminazioa saihesteko; izan ere, familia gurasobakarren kasuan, arauz aurreikusitako baimena adingabe jaioberrien diskriminazioa saihesteko moduan interpretatu behar da, eta Konstituzioak aitortzen dien interes goren aintzat hartuta. Hala, funtzionario publikoen kasuan ama biologikoarentzat jaiotzagatik aurreikusitako hamasei asteko baimenari ama biologikoa ez den gurasoaren hamar asteko baimena gehitu behar zaio, lehen sei asteak kanpoan utzita. Hala ere, kasu horretan zortzi asteko gehikuntza baino ez zen eskatu, eta hala eman zuen epaitegiak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/8ea2890e310a81f0a0a8778d75e36f0d/20241024>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 5003/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1642/2024 Epaia, 2024ko urriaren 16koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenaren interpretazio-irizpidearen arabera, ez tokiko araubideari buruzko estatuko oinarrizko legeriak, ez hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzko estatuko sektore-legeriak ez diete zuzeneko eskumenik ematen 2.000 biztanletik beherako udalerriei ur horiek tratatzeko sistema bat ezartzeko, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek beren eskumenen esparruan esleitzen diren eskumenak.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/a158f5eaef4fb22da0a8778d75e36f0d/20241025>



**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4955/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1618/2024 Epaia, 2024ko urriaren 16koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinaren arabera, konpentsazio- edo itzultze-akzioa, bidegabeki edo arrazoirik gabe aberastea debekatzen duen administrazio-zuzenbidearen printzipio orokorrean oinarritua, ez da zuzenean aplikagarria zerbitzu publiko bat ematen duen administrazioak enpresa emakidadunari zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergaren kargari eustearen ondorioz emakida-tituluaren beraren klausuletan oinarrituta erregaien kostuen gehikuntzagatiko konpentsazio gisa alde aurretik ordaindu ziren zenbatekoak itzultzeko eskatzen dion kasuetan (zerga horren ezarpena, gerora, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateraezina zela deklaratu zen epai bidez), honako presuntzio hau itzultzeko betebeharraren iturri gisa aipatuta: emakidadunak Herri Ogasunaren aurrean hasitako sarrera bidegabeak itzultzeko tributu-prozedura eska zezakeela ausaz, edo estatu legegilearen ondarezko erantzukizunaren kalte-ordain akzioa egikaritu zezakeela, baldin eta ez bada egiaztatzen ondare-gehikuntzaren aurrekontua edo ondare-balioaren transferentzia edo lekualdaketa ustez titulurik gabe aberastutakoaren alde.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d97df82e6694ddc8a0a8778d75e36f0d/20241025>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4961/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1637/2024 Epaia, 2024ko urriaren 16koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak berretsi egiten du inportazioari dagokion BEZaren autolikidazioan inportazioari dagokion BEZaren kuota bat ez sartzeak, aduana-baimena jaso ondoren, autolikidazio hori borondatez ordaintzeko epea amaitu eta hurrengo egunean zerga-bilketako epe exekutiboa hastea eta premiamendu-errekargua eskatzea ekar dezakeela, baina kontuan izanda epe exekutiboak ez dakarrela berekin, automatikoki, premiamendu-probidentzia, ezta haren errekarua ere. Dena den, BEZaren neutraltasun fiskalaren printzipioa dago hemen jokoan, Europar Batasunaren barruan harmonizatutako zeharkako zergapetzearen modalitate horren benetako ardatza; izan ere, aitorten berantiarra aurkeztu zuen subjektu pasiboari —epean aurkeztu izan balu, kuoten kenkarirako eskubidea izango zukeen— ezin zaio automatikoki ezarri errekarua bat, errekarua hori, beharbada, ordaindutako kuota desagertzea eragin dezakeen eskubide batean proiektatu, eta, horrela, konpentsatu edo neutralizatu egin daitekeelako — Administrazioak ez du alderdi horri buruzko iritzirik ematen—.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/b463ec927b26a8eea0a8778d75e36f0d/20241025>



**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4984/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1639/2024 Epaia, 2024ko urriaren 16koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi egiten du jarritako berrikuspena. Izan ere, errekurtsogileak ez du errekurtsuan zehar egiaztatzen berraztertze-errekurtsua oinarritzeko aipatzen duen dokumentazioaren berri ez zuenik berrikusteko eskatzen den epaia eman baina lehen.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/73921c48f7e46a39a0a8778d75e36f0d/20241025>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4950/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1621/2024 Epaia, 2024ko urriaren 16koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenaren doktrinaren arabera, konpentsazio- edo itzultze-akzioa, bidegabeki edo arrazoirik gabe aberastea debekatzen duen administrazio-zuzenbidearen printzipio orokorrean oinarritua, ez da zuzenean aplikagarria zerbitzu publiko bat ematen duen administrazioak enpresa emakidadunari zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zergaren kargari eustearen ondorioz emakida-tituluaren beraren klausuletan oinarrituta erregaien kostuen gehikuntzagatiko konpentsazio gisa alde aurretik ordaindu ziren zenbatekoak itzultzeko eskatzen dion kasuetan (zerga horren ezarpena, gerora, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateraezina zela deklaratu zen), honako presuntzio hau itzultzeko betebeharraren iturri gisa aipatuta: emakidadunak Herri Ogasunaren aurrean hasitako sarrera bidegabeak itzultzeko tributu-prozedura eska zezakeela ausaz, edo estatu legegilearen ondarezko erantzukizunaren kalte-ordain akzioa egikaritu zezakeela, baldin eta ez bada egiaztatzen ondare-gehikuntzaren aurrekontua edo ondare-balioaren transferentzia edo lekualdaketa ustez titulurik gabe aberastutakoaren alde.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/dbd684b3a2ced02ca0a8778d75e36f0d/20241024>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4774/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1548/2024 Epaia, 2024ko urriaren 2koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Narciso jaunak, epaile gisa, magistratuaren soldatari dagozkion soldata-aldeak ordaintzeko eskatu zuen, kategoria horri atxikitako epaitegi batean funtzioak bete zituen denbora zela eta.

Salak ondorioztatzen du ezin duela magistratuaren soldata jaso. BJLOren 403. artikuluan eta 15/2003 Legearen 4. artikuluan oinarritzen da. Artikulu horietan ezartzen da soldata kategoriaren arabera ordainduko dela, ez betetako lanpostuaren arabera.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/14a654ee36d94870a0a8778d75e36f0d/20241011>



**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 5024/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1653/2024 Epaia, 2024ko urriaren 21ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Auzitegi Gorenak ezetsi egiten du jarritako errekurtsua, eta berretsi egiten du urriaren 11ko TED/989/2022, urriaren 14ko TED/995/2022, abenduaren 2ko TED/1232/2022 eta abenduaren 22ko TED/1295/2022 aginduen legezkotasuna; izan ere, besteak beste, aurkaratutako aginduak aplikatzekoak eta eguneratzekoak dira, eta IET/1345/2015 Aginduak ordezkatzan duen erregelamendu-arauan aurreikusitako metodologia aplikatzen dute. Agindu horiek kostu operatiboak sei hilean behin eguneratzeko aurreikusten dira, baina erregelamendu-arauan aurreikusitako formula eta indizeak erabilia.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/30c08ffb303cc43ba0a8778d75e36f0d/20241025>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4975/2024 AGE) Auzitegi Gorenaren 1651/2024 Epaia, 2024ko urriaren 21ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Pentsiodun baten ordezkartza prozesalak administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri zuen amatasun-osagarria gehitu zekion egin zuen erretiro-pentsioa berrikusteko eskaera ez onartzeko ebazpenaren aurka. Hasierako eskaera 2021eko maiatzean ukatu zen, eta erabaki hori ez zen aurkaratu. Hala, irmotasuna hartu eta gauza epaitu administratiboaren ondorioak sortu ziren.

Ezetsi egiten da pentsiodunak ipinitako kasazio-errekurtsua; izan ere, amatasun-osagarria gehitzea ukatu zuen administrazio-ebazpena aurkaratu ez zen aurreko erabaki baten irmotasunean oinarritzen da. Auzitegiak ondorioztatzen du administrazio-egintzen berrikuspenari buruzko araudia ez dela kasu honetan aplikatzen, eskaera jada ebatzita dagoen aurreko baten errepikapena delako. Epaitza: kasazio-errekurtsua ezestea, administrazio-erabaki irmoa berrikusteko oinarri juridikorik ez dagoelako.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/f5fa5b7e041a4eefa0a8778d75e36f0d/20241025>



## Auzitegi Nazionala

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 5075/2024 ANE) Auzitegi Nazionalaren 129/2024 Epaia, 2024ko urriaren 21ekoa. Gizarte-arloko Sala.

Salak ondorioztatzen duenez, aparteko orduak lanaldi arruntaren gehieneko iraupenaren gainean egiten diren lanorduak dira, eta, horiei dagokienez, hitzarmen kolektiboak edo, halakorik ezean, banakako kontratuak zehaztuko du ordu horietarako finkatutako zenbatekoa ordainduko den, edo ordaindutako atsedeen-denbora baliokideagatik konpentsatuko diren.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d4fa0e1764360720a0a8778d75e36f0d/20241029>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4924/2024 ANE) Auzitegi Nazionalaren Epaia, 2024ko urriaren 10ekoa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak ondorioztatzen du betetzen duen lanpostua jabetzan eta modu iraunkorren izateko eskubidea funtzio publikorako sarbidea, iraunkortasuna eta etendura arautzen duen barne-araudiaren aurkakoa dela formalki, bai karrerako funtzionarioei dagokienez, bai bitarteko funtzionarioei dagokienez. Ez dago iraupen luzeko funtzionarioaren figurarik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/d14545955fbddd4da0a8778d75e36f0d/20241028>

- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: 4800/2024 ANE) Auzitegi Nazionalaren 117/2024 Epaia, 2024ko urriaren 7koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.

Salak deuseztat jotzen du enpresak honako kasu hauetan lanegunak ez-produktibotzat jotzeko hartutako erabakia, ordainsari aldakorra ordaintzearen harira: langileak aldi baterako ezintasun-egoeran egoteagatik zerbitzuak eman ezin izan dituenen, bai eta langileak Langileen Estatutuaren 37.3 artikuluko b), e) eta f) letretan aitortutako baimen ordainduak eta hitzarmen kolektiboaren 14. artikuluan aitortutako baimenak soilik erabili izanagatik zerbitzurik eman ez duenean ere, Langileen Estatutuaren 37.3 artikuluan jasotako arrazoiengatik. Horrenbestez, demandatuak deklarazio hori onartu eta bete behar du.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/016aff11c34b2435a0a8778d75e36f0d/20241022>



## Justizia-auzitegi nagusiak

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Aragoiko JANen 1204/2024 Epaia) Aragoiko JANen 713/2024 Epaia, 2024ko irailaren 27koa. Gizarte-arloko Sala.**

Epaiak aitortzen du langileek ordaindutako bost eguneko baimena izateko eskubidea dutela ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo odol- edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailarainoko ahaideen istripu edo gaixotasun larriengatik, ospitalizazio laburragoagatik edo ospitaleratzetik gabeko ebakuntzagatik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/89ab04720d33fdf2a0a8778d75e36f0d/20241015>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 2773/2024 Epaia) EAEko JANen 403/2024 Epaia, 2024ko irailaren 17koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak baietsi egiten du jarritako apelazioa. Izan ere, ez da baliozkotzat jo behar aldi baterako ezintasunagatik lizentzia iraungi zuen ebazpena, osasun-azterketa egiteko nahitaezko jakinarazpen eta zitazioa ez zelako egin GSINK horretarako zehaztutako egoitzan.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/855285d1edd65da2a0a8778d75e36f0d/20241023>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Galiziako JANen 373/2024 Epaia) Galiziako JANen 25/2024 Epaia, 2024ko urtarrilaren 24koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Demandatzailea, zeina Concello de O Barco de Valdeorraseko funtzionarioa baita, Concello de Vigoko udaltzain plaza baterako izendatu zuten, hilabeteko epean karguaz jabetzeko betebeharrarekin. Hala ere, jatorrizko lanpostuan jarraitzea erabaki zuen, eta bateraezintasunagatik eszedentzia-egoeran zegoela deklaratzeko eskatu zuen. Hori ukatu egin zuen Vigoko administrazioak, eta, lehenengo, lanpostuaz jabetu behar zuela argudiatu zuen. Demandatzaileak ezarritako epearen barruan aurkeztu zuen eskaera, baina Administrazioak ez zuen onartu, eta, aldez aurreko baldintza gisa, karguaz jabetzeko eskatu zuen. Ondoren, administrazioarekiko auzien epaitegiak baietsi egin zuen haren demanda. Adierazi zuen Vigoko administrazioak eszedentzia-egoeran zegoela deklaratu behar zuela, eta ezeztatu egin zuen haren eskaera ukatzen zuen ebazpena.

Funtzionarioari arrazoia ematen zaio, Vigoko administrazioak bateraezintasunagatik eszedentzia-eskaera onartu behar zuela ezartzen baita, lanpostuaz jabetzeko epearen barruan jatorrizko lanpostuan jarraitzea erabaki zuelako. Epaitzaren arabera, Administrazioak jarritako



apelazio-errekurtsoa ezestekoa da, eta ukatzeko ebazpena baliogabetu zuen lehen auzialdiko epaia berresten da.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/5b30eb28d1c4601ba0a8778d75e36f0d/20240229>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Galiziako JANen 6038/2024 Epaia) Galiziako JANen 626/2024 Epaia, 2024ko irailaren 20koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Epaiaaren arabera, egonkortze-prozesuaren deialdia zuzenbidearen araberakoa da, lanaldi osoko zerbitzuak gehiago puntuatzean ez delako hauteman emakumeekiko diskriminaziorik.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/833ae802fc7e2521a0a8778d75e36f0d/20241018>

- **(Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: EAEko JANen 2904/2024 Epaia) EAEko JANen 404/2024 Epaia, 2024ko irailaren 20koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Justizia Auzitegi Nagusiak ezetsi egiten du jarritako apelazioa, eta berretsi egiten du apelatzailea hautaketa-prozesutik kanpo uztearen baliozkotasuna, aztergai denak oso bestelako izaera baitu. Hirugarren proba nortasun-test bat da, eta bigarreanean, berriz, arrazoitzeko gaitasunak eta trebetasunak, mekanikoak, espazialak eta hitzezkoak neurtzen dira. Test motako probetatik eratorritako puntuazioen erregularitasunari dagokionez, diskrezionalitate teknikoaren kontrol-parametroak berezitasun jakin batzuk ditu, eta, beraz, apelatzaileak aipatzen duen motibazio-arauarekin zerikusirik ez dute. Izangaiari hainbat erantzun alternatibo ematen zaizkionean, eta horietatik bakarra zuzena denean, kontrol hori egiten da: enuntziatuaren argitasuna eta zuzentasuna kritikatur eta hautaketa-organoak egokitzat jotzen duen erantzunaren hautaketa aurkaratuta.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/142f848bdac4367da0a8778d75e36f0d/20241024>



**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Valentziako Erkidegoko JANen 4698/2024 Epaia) Valentziako JANen 798/2024 Epaia, 2024ko urriaren 1koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Demandatzaileak, Polizia Nazionalaren Kidegoko funtzionario gisa, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen telekomunikazioetako espezialistaren lanpostuagatiko berariazko osagarriaren osagai orokorrari dagozkion soldata-aldeak ordaintzeko egindako eskaera ezestearen aurka. Eskaera 2022ko maiatzaren 18an aurkeztu zen, eta Administrazioak berariaz ezetsi zuen 2023ko urtarrilaren 20an. Argudiatu zuen berariazko osagarria funtzionarioaren kategoriaren arabera zehazten dela, eta ez betetako lanpostuaren arabera. Auzi-jartzaileak alegatu zuenez, oinarritzeko eskalako funtzionarioentzat gordetako lanpostu bateko funtzioak betetzen zituen arren, ez zuen jasotzen bere lanpostuari zegokion berariazko osagarriaren osagai orokorra, eta hori bidegabera iruditzen zitzaion. Administrazioak, bestalde, defendatu zuen berariazko osagarria lanbide-kategorian oinarritzen dela, eta betetzen zuen lanpostuak ez ziola ordainsari-igoerarako eskubiderik ematen, kategoria bereko poliziek eta ofizialek berdin bete zezaketen lanpostua zelako.

Demandatzaileari arrazoia ematen zaio, eta aitortu egiten zaio telekomunikazioetako espezialistaren lanpostuagatiko berariazko osagarriaren osagai orokorrari dagozkion ordainsari-aldeak jasotzeko eskubidea duela. Epaia argudiatzen duenez, goragoko kategoriako lanpostu baten funtzio baliokideak betetzean, demandatzaileak dagokion ordainsaria jasotzeko eskubidea du, ez baita justifikatzen ordainsari-tratu desberdina izatea. Epaitzaren arabera, partzialki baiestekoa da, eta erreklamazioa egin baino lau urte lehenagotik hasi eta epaiaren egunera arteko ordainsari-aldeak jasotzeko eskubidea aitortzen da, sortu gabeko geroko aldiak alde batera utzita.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/1091daad87b24a21a0a8778d75e36f0d/20241029>

**- (Jurisprudentzia-bilduma ofiziala: Valentziako Erkidegoko JANen 4699/2024 Epaia) Valentziako JANen 803/2024 Epaia, 2024ko urriaren 1koa. Administrazioarekiko Auzien Sala.**

Generalitatean lanpostuen zerrendak eguneratzen dituzten administrazio-ebazpenak aurkaratzeagatik sortzen da epaia, zehazki, parke naturalen zuzendari-kontserbatzaile lanpostuetarako titulazio-betekizunei dagokienez. Apelatzaileak argudiatzen du Baso Ingeniaritzako eta Ingurune Naturaleko Graduko titulazioa egokia dela lanpostu horietarako, nahiz eta Administrazioak titulazio hori Geografia, Farmazia edo antzeko beste batzuen alde baztertu, indarrean dagoen araudian eta Valentziako Funtzio Publikoaren Legearen interpretazioan oinarrituta.

Arrazoia ematen zaio Administrazioari, eta berretsi egiten da apelazio-errekurtsoa ezesten duen instantzia-epaia. Salak ondorioztatzen duenez, parke naturalen zuzendari-kontserbatzaile lanpostuetarako titulazioen hautaketa bat dator indarrean dagoen araudiarekin eta esleitutako





funtzioekin. Horiek burutzeko, erantzukizun-maila izan behar, aurkaratutako titulazioekin justifikatzen ez dena. Epaitzaren arabera, apelazio-errekurtsoa ezestekoa da, ez baita frogatu baztertutako titulazioak egokiak direnik lanpostuetarako eskatutako gaitasunei dagokienez.

<https://www.poderjudicial.es/search/AN/openDocument/33927406408bd2e9a0a8778d75e36f0d/20241029>

## TOKIKO MUNDUA EUROPAN

### Eskualdeetako Lantaldea

- **162. osoko bilkura, 2024ko urriak 7-9. IRIZPENA: Migrazioari eta asiloari buruzko Itunaren betearazpen-plan erkidea: tokiko eta eskualdeko ikuspegia.**

Eskualdeetako Lantaldeak ontzat ematen du betearazpen-plan erkidea estatu kideentzako lehen orientabide gisa, Migrazioari eta asiloari buruzko Itunean adostutakoa erabat aplikatzen dela bermatze aldera; pozik hartzen ditu urteko elkartasun-zikloa eta planaren oinarri diren hamar blokeen arteko erlazioa; Europako asilo-sistema erkide baten helburu nagusia ez itzultzearen printzipioari eta asilo-eskubideari atxikitzea bermatzea dela adierazten du; planak maila anitzeko gobernantza eraginkor eta efizientea izatearen garrantzia nabarmentzen du, eta, ondorioz, tokiko eta eskualdeko enteei funtsezko eginkizuna dute haren aplikazioan; eskatzen du juridikoki aitortu dadila kanpoko mugak dituzten eskualdeen egoera espezifikoak Europako askatasun-, segurtasun- eta justizia-politiketan, migrazio-fluxuek bertan duten eragina dela eta.

<https://cor.europa.eu/es/our-work/opinions/cdr-2717-2024>



**- 162. osoko bilkura, 2024ko urriak 7-9. IRIZPENA: Energia eolikoari buruzko Europako ekintza-plana.**

Eskualdeetako Lantaldeak babestu egiten ditu Batzordeak Batasuneko industria eolikoaren sektorea indartzeko eta EB osoan energia eolikoaren garapena sustatzeko egiten dituen ahaleginak; izan ere, potentzial handia du energia-segurtasuna emateko, energia berriztagarrien kuota handitzeko eta energiarako prezio eskuragarriak bermatzeko, eta, horrela, tokiko eta eskualdeko enteen energia-independentzia handiagoa lortuko dute. Halaber, adierazten du funtsezkoa dela energia biltegitzeko, garraiatzeko eta banatzeko sistema egoki bat izatea, mugaz gaindiko interkonexioak barne, lehorreko eta itsasoko proiektuak egiteko eta sare elektrikoaren egonkortasunerako; aitortzen du sustatzaile eolikoek atzerapen handiak dituztela baimenak eskatzean eta itxaronaldi luze horiek arriskuak eragin ditzaketela, eta, bere ustean ere, baimenak emateko prozedura arin eta garden bat diseinatzea beharrezkoa da, ahal den neurrian, bizkortze digitala eragiteko.

<https://cor.europa.eu/es/our-work/opinions/cdr-0710-2024>

**- 162. osoko bilkura, 2024ko urriak 7-9. IRIZPENA: Adimen artifizial etikoa eta superkonputaziorako sarbidea enpresa emergenteentzat.**

Eskualdeetako Lantaldeak adierazi duenez, EuroHPCren gaitasuna erabiltzeko eskatuz adimen artifizial etikoaren sortze-ereduak garatzen saiatzen diren enpresa emergenteentzako eta enpresa txiki eta ertainentzako sarbide-baldintzak administrazio-karga minimizatzeke eta EBko Adimen Artifizialaren Erregelamendu berria malgutasunez aplikatzeko moduan ezarri behar dira, enpresa horien egoerarekin bat.

<https://cor.europa.eu/es/our-work/opinions/cdr-1164-2024>

## ARGITALPENAK

- *Revista de Estudios de la Administración Local y Autonómica. Nueva Época. 22. zenbakia (2024ko urria)*




Informazio gehiago: <https://revistasonline.inap.es/index.php/REALA/issue/view/748/120>

- **Harrera ehundu. Euskadin atzerritarrei harrera egiteko tokiko politikak diseinatzeko eskuliburua. EUDEL.**

### Harrera ehundu

Euskadin atzerritarrei harrera egiteko tokiko politikak diseinatzeko eskuliburuaren **DOKUMENTU LABURTUA**

Erantzukizun publikoa, integritasun-bakazioa eta onarri komunitarioa



Informazio

gehiago:

[https://eudel.eu/eu/file/libro\\_ficheros/dokumentu\\_laburtua\\_euskadin\\_atzerritarrei\\_harrera\\_egiteko\\_tokiko\\_politikak\\_diseinatzeko\\_eskuliburua](https://eudel.eu/eu/file/libro_ficheros/dokumentu_laburtua_euskadin_atzerritarrei_harrera_egiteko_tokiko_politikak_diseinatzeko_eskuliburua)



- *Cuadernos de Derecho Local*, 65. zk. Los Gobiernos locales ante la Ley de residuos y suelos contaminados para una economía circular. 2024KO EKAINA.



Informazio gehiago: <https://www.gobiernolocal.org/publicaciones/2024/QDL65/QDL65.pdf>



## DEIALDI INTERESGARRIAK

- Tokiko eguneratze juridikoari buruzko mintegien zikloa. «Josep Maria Esquerda». 2025 – Lehen saioa. Data: 2024ko urtarrilaren 17a.



Coordinació:

Petra Mahillo García, secretaria general de la Diputació de Barcelona (coordinadora)  
Alfredo Galán Galán, director de la Fundació Democràcia i Govern Local (coordinador adjunt)  
Xavier Forcadell Esteller, secretario de Asesoramiento Municipal en el Àmbit Legal de la Secretaria General de la Diputació de Barcelona (coordinador adjunt)  
Susana Martínez Novella, directora de Serveis Jurídics de la Secretaria General de la Diputació de Barcelona (coordinadora adjunta)

Informazio gehiago:

[https://gobiernolocal.org/Actividades/Ciclo\\_JME/2025/ProgramaJME2025\\_S1.pdf](https://gobiernolocal.org/Actividades/Ciclo_JME/2025/ProgramaJME2025_S1.pdf)

- Mintegia: «Administrazio publikoaren atzerabideko akzioa, bere zerbitzura dauden langileen aurka».



Antolatzailea: Santiago de Compostelako Unibertsitateko Demokrazia eta Tokiko Gobernu Fundazioa.

Data: 2024ko azaroaren 4a.

Informazio gehiago:

[https://www.gobiernolocal.org/Actividades/2024/241104\\_Santiago\\_programa.pdf/](https://www.gobiernolocal.org/Actividades/2024/241104_Santiago_programa.pdf/)



- «Lugarren saioa. Kontratazio irregularra eta kontratuaren berroreka ekonomikoa» («Workshop-ak. Kontratazio publikoa eta eskumena» barnean)

**WORKSHOPS**  
**CONTRATACIÓN PÚBLICA Y COMPETENCIA**  
 21 de NOVIEMBRE 2024

SEMINARIO FOMENTA SECCIÓN CONTRATACIÓN REGULAR Y REQUERIBDO ECONOMICO DEL COLEGIO

**Prof. Dr. D. Tomás Carlos Campos**  
 Catedrático de Derecho Administrativo, Universidad Complutense de Madrid.  
 Consejo Académico de Tercer Abogado.

**Prof. Dr. D. Alfredo Galán Galán**  
 Catedrático de Derecho Administrativo, Universidad de Barcelona.  
 Director de la Fundación Democracia y Gobierno Local.

**Prof. Dr. D. Juan Antonio Carrillo Donaire**  
 Catedrático de Derecho Administrativo, Universidad de Sevilla.  
 Consejero-asesor de SGP Estudio Legal.

**Modero:**  
**Prof. Dr. D. Javier Guillén Caramés**  
 Catedrático de Derecho Administrativo, Universidad Rey Juan Carlos.  
 Consejo Académico Heróico Smith Freshfields.

**Organización:**

- Prof. Dr. D. Javier Guillén Caramés, Catedrático de Derecho, Universidad Rey Juan Carlos.
- Prof. Dra. María Hernández Piquero, Prof. Contratación Pública, Universidad Rey Juan Carlos.
- Prof. Dra. Lorea Fernández Barreira, Profesora Derecho Administrativo, Universidad Rey Juan Carlos.

**Financiación:**

- Proyecto "Contratación pública y competencias nuevas entre otros el plan de investigación, "Formación y desarrollo", financiado en el convenio público para la creación de grupos para la realización de proyectos de I+D+i para jóvenes doctores en la UJC.
- Grupo de investigación de apoyo docente en Derecho Público Económico de la Universidad Rey Juan Carlos (UEDEP).

**Reservación:**  
 Puede realizarse la inscripción hasta el 18 de noviembre en: [https://www.gobiernolocal.org/Actividades/2024/241121\\_Madrid\\_programa.pdf/](https://www.gobiernolocal.org/Actividades/2024/241121_Madrid_programa.pdf/) Madrid local (M.L.C), Centro de Estudios, Paseo de los Arbores 101, Edificio Departamental, 28002, Madrid y sobre Google Teams. A través del enlace que se facilitará a los interesados.

Antolatzailea: Juan Carlos Erregea Unibertsitatea

Data: 2024ko azaroaren 21a.

Informazio gehiago:

[https://www.gobiernolocal.org/Actividades/2024/241121\\_Madrid\\_programa.pdf/](https://www.gobiernolocal.org/Actividades/2024/241121_Madrid_programa.pdf/)